

uk

147. zenbakia / 2008 azaroak 18





TURISMOAREN KALITATEA

“Askotan zailagoa da norbere erabakiekin lan egitea, ezarritakoekin baino”

Euskadin jada Turismo Kalitatearen “Q”a duten 241 establezimendu daude. Horien artean dago, lehengo urteaz geroztik, Kaian Hotela. Juan Antonio Zaldúa bertako zuzendariak dio lan-eredu berriaren emaitzarik aipagarrienak, eskaini dizkien parametroak eta egunerokotasuna kontrolatzeko lan-sistema direla.

Zeintzuk izan dira turismoaren alorrekin zerikusia duten sistema eta programa zehatzak aukeratzeko arrazoirik erabakigarrienak?

Arrazoi nagusiak bi izan dira: bata, establezimenduen funtzionamenduan irizpide zorrotza goak ezartzea, kalitatezko egoera bat lortzen laguntzen duelako; bestea, erakundeen aldetik lortu dugun babesa.

Ze onura izan du zure erakundeak Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratu zuenetik?

Batzuetan, funtziona-

mentuan izan ezik, abantailak ez dira begibistakoak, baina mota guztietako zerbitzuak eskaintzeko zehaztasuna egon dadin ezarritako ordena eta eraginkortasuna nabari dira.

Sistema aplikatu zenuenetik ze onura izan dituzue barne-antolakuntzan?

Antolakuntza eta langileen kontzientzia izan dira hobekuntza nagusienak. Hoteleko zuzendaritzatik datozen eskaeraz gain, langileek badakite Kalitatearen “Q”ak baldintza batzuk eskatzen dizkiela eurek

kalitate maila bat lor dezaten.

Bezeroaren gogobetetzeari dagokionez, ze hobekuntza izan dira?

Lehen, bezeroa asebeteta irteten zen; gaur, segur aski, antzera. Bezero eta egoera bakoitzaren arabera konparazio bat egin beharko genuke; ni ez naiz ziur zein izango litzatekeen bezeroaren iritzia lehen nola genuen eta orain nola dugun ikusita. Dena dela, esan nezake bezeroa gustura dagoela, eta hori da interesatzen zaiguna. Haren iritzia jakiteko keak eta proposamenak kontuan hartzen ditugu, aztertuta geroxeago konpontzeko. Tarteka inkestak egiten ditugu; joan den urteko erantzuna bikaina izan zen.

Turismo Kalitatearen “Q”a eskuratu izanak zure erakunde maila

lehiakorrango batean kokatu duela uste duzu?

Lehiakortasun-maila ziurtagiria edukitzeak baino, egun bizi garen parametroetara garama tzaten egoera sozio-ekonomikoak neurtzen duela uste dut.

Zeintzuk uste duzu izan direla “Q”aren prozesua abiatu zenuenetik landu dituzuen atalrik aipagarrienak?

Ziurtagiria lortzeko egin dugun guztian parte hartu duen edozein atalek esfortzu handia eskatu du (nahiz geroz eta gehiago entrenatu, ahalegina hainbat eta txikiagoa izan). Honek, nolabait, parametro batzuk eta egunerokotasuna zaintzeko lan egiteko era ekarri dizkigu. Askotan zailagoa da norbere erabakiekin lan egitea, ezarritakoekin baino.



Juan Antonio Zaldúa
Kaian Hotela
Zuzendaria

Zer esango zenioke turismo profesionalaren alorreko edozeini, sistema honekin lan egitera anima dadin?

Dudarik gabe gomendatuko nuke, gure balorazioa positiboa baita. Beste kontu bat litzateke zeinek eta nola egin lezakeen ziurtagiria lortzeko behar den lan guztia, batez ere hasierako lan-estra.

Eusko Jaularitzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorrangoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

JARDUNBIDE EGOKIAK: Kalitatearekiko konpromesua eta sensibilizazioa, hautatutako norakoetan turismo arloko profesionalen zuzendutakoa.

TURISMO KALITATEAREN Q-A: Kalitate kudeaketaren sistemaren egiaztapena. Bezeroen iguripenaren betekizunaren bermea.

EFQM BIKAITASUNEREDUA: Erakunde kalitatearekiko bikaintasuna aurrean jartzen dien programa.

JARRI TURISMO-KALITATEAREN Q-A ZURE ESTABLEZIMENDUAN!

94 607 75 86
94 404 74 70

www.turismoa.euskadi.net
www.euskalit.net

“Batzuetan, abantailak ez dira begi-bistakoak, baina mota guztietako zerbitzuak eskaintzeko zehaztasuna egon dadin ezarritako ordena eta eraginkortasuna nabari dira.”



turismoaren
nabari agentzia
agencia vasca
de turismo

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO

EUSKALIT

Bikaintasunerako Euskal Fundazioa
Fundación Vasca para la Excelencia

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Getxo Antzokiaren agurra, Ken 7.
- LEHEN ETA ORAIN. Zubilleta auzoa.
- TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Edwin Vilca.
- HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Panpako Bedarra.
- ARGAZKIA. Ibaizabal itsasadarra.
- BERBETAN. Adela Andikoetxea, Zuberoa Iturburu.
- FOTOGRAFIA. Umeen kontura, Naiara Goikoetxea.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Znebi.
- MUSIKA. Itoizen kantu bilduma.
- LIBURUAK. Simone de Beauvoiren biografia euskaraz.
- KIROLAK. Punta Galea Challenge Surf Txapelketa.
- ELKARRIZKETA. Koska Irratia.


AMAITZEKO

- NON JAN. UK taberna.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Gorlizko Andra Mari Futbol Taldea 1932, Bittor Egurola.
- AITORMENAK. Matxalen de Pedro, Maitane Nerekan.

Azala: Naiara Goikoetxea



30 Adela Andikoetxea



11 Edwin Vilca

Berbetan


Ehunka sari eskuratu du bere barazkiei esker Urdulizen bizi den ortuko langileak. Onena izanda ere, luxu handietarako ematen ez duen ofizioa.



46 Koska Irratia



14 Pedro Guallar



26 Panpako Bedarra



54 Matxalen de Pedro

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/s - ALGORTA. Tel. 94 430 58 81

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan,
Zuberoa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Menbaka

TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega

KOLABORATZAILAEK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,
Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara
Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)


KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkartearen
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILAEK



gugeu

Nazioarteko egunak

Esku artean daukazuen zenbakia kontuan edukiz gero, hiru ale baino ez dira geratzen UKren 2008ko uzta agortzeko. Hiru ale eta “gaztaina erre artean” “gabon gaua pozik” igaroko dugu. Baina horretarako denbora falta da ondino (dagoeneko, kale eta dendetan koloretako argi eskizofrenikoak eta Papa Noelak ikusten baditugu ere).

Oraindik ez gara Gabonetako gehiegizko kontsumoari buruz berbetan hasiko; ezta Olentzerok krisia dela eta, galdu dituen kiloei buruz ere. Nazioarteko egunak izango ditugu hizpide oraingoan. Alde batetik, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna daukagu azaroaren 25ean. Zoritxarrez, Uribe Kostako herri guztietan “ospatuko” dute egun hori, herriko elkarteek, kolektiboek, zein Udalek antolatu dituzten ekintzakaz. Zoritxarrez esaten dugu, hobe genuelako data hau “Txistorra Janaren Nazioarteko Eguna” izango balitz. Beste aldetik, abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu; hori bai data berezia, urteko egun guztietan ospatu beharrekoa.

UKko lantaldea

izan zen > Punta Begoñako galerien erabilera publikoaren aldeko ekimena



Gorrondatxe Kultur Elkarteak Punta Begoñako galerien erabilera publikoaren aldeko elkarretaratzea, eta erakusketa informatiboa egin zituen azaroaren 9an Arriluzen. 1918an eraiki zituzten galeriak, mendiari eusteko betebeharruntzionalari aterpe eta pasealeku izaera emanez. Azken urtean, ika-mika handia sortu da lur horietan eraiki gura omen duten luxuzko hotela dela eta ez dela. Gorrondatxekoen ustez, getxoztar eta bisitari ororen erabilpenerako izan behar dira galeriak.

uk

gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[irudia]



Gran Cinema gogoan / Bilboko Kafe antzokiarena dirudien arren, fokuek argizatzen duten goiko eszenatokia Getxo Antzokiarena da, “Gran Cinema” maitea askorentzat. Ken 7 taldeko lagunak izan ziren taula zapaltzen azkenak, azaroaren 1ean. Diotenez, askoz handiagoa eta modernoagoa izango da eraikiko duten antzoki barria; altxaruz eta egurrez eginda egongo da, eta goiko solairutik Abra ikusi ahal izango da. Hala ere, eserleku berde “deseroso” horietan eseri zein lur azpiko aldegetan nerbioak jota ibili direnak, Getxo Antzoki zaharra, betikoa, eroango dugu bihotzetan. Agur eta ohore Gran Cinema! / Argazkia: **Asier Mentxaka**

GETXO-08

EUSKAL KULTURAREN X. JARDUNALDIAK

Azaroaren 21etik abenduaren 8ra

X Jornadas de la cultura vasca Del 21 de noviembre al 8 de diciembre

bagaaaaaara!!

bagiiiiiiiiiiiiire!!



08-11-10etik 30era - bazu arrats? II. ama eta bideo lehiaketa
 10 al 30 de nov - II concurso de ama y video

08-11-21 - VII NAZIOARTEKO TRIKITXA JAIALDIA - VII Festival Internacional de Trikitxia

08-11-26 - PIZZA TALEKERRA - Taller de pizzas

08-11-27 - KOMERIAREN KLUBA

08-11-28 - III. ELISKARA SHOWA - Karaoke intercultural

08-12-02, 03 - LITERATURA TALEKERRA JULEN GABIRIA idazlearen estuik - Taller de literatura

08-12-03 - EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA - Día Internacional del euskera
 TRIKIKANTU GOSARIA eta KANTUKAFEA

08-12-04 - UK PROIEKTATZEN - 10º aniversario de la revista UK

08-12-05 - "ZARREN DISTIRA GALA eta KASTINA" Egin doktunak!

08-12-07 - BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2008 - Campeonato de bertsolaris de Bizkaia

08-12-08 - DORRI, MIRRI ETA DORBITON JUNIOR: "BIHURRIKERIAK"

Esaneri azko: Getxoko Udal Euzkaltzeta, Leuzetter-AEK Euzkaltzeta, J. A. Agirre Euzkaltzeta, Bizkaiko Trikitxia Elkarte, Bizkaiko Bertsozaleen Elkarte, The Piper's taberna, GLASS kafetegia.

Informazioa
www.getxo.net 94 466 00 10



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / ZUBILLETA AUZOA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > neure artean*

Serantes mendia Algortatik ikusita, 2005ean

Testua: **Xa2 Paya**
Argazkia: **Urtzi Puente Gutierrez Balantxas**

itsasoari begira.
Ideiak soberan daude
horiek onenak dira...
baserriko txorizoak
egondako baserrira
eta mendeetan zutik
bera heltzen da mendira
AHTa kenduta
lehenbiziko geltokira
beti iristen baikara
mugarria da desira
baina lige kontuetan
galdu nahi ez badu liga
lana Errealak dauka
egunero lantokira...
eta irriz azaltzea
lortzea nahi den neurria
eta garesti da lana
ezinetik garestira
Prezioak jaitz litezke
honen moduko krisira?
nork eraman ote gaitu
Ebrotik eta Aturrira,
eta geldi dago dena
heltzerakoan geldira...
Madari itxura dauka
nire ilobaren xiba?
non sartuko ote nuen
sartuko zitzaidan, tira,
zerbeza bat zeinen ondo
edangarrien garbira,
baina ura ez da heltzen
eguzkiaren distira,
olatuek osten dute
ur azaletik azpira,
Itsasoa bare dago

* Behetik gora irakurri.

Doinua: *Habanera bikoitza*

Uribitakoran parte hartu gura duzu?
Bidal iezaguzu atal honetan agertzea
gura zenukeen argazkia, eta bertan
ikusiko duzu, bertso eta guzti!
uk@aldizkaria.biz

leioa > Andoni Aresti Dantza Eskola eta Kantika Korala sarituak

Andoni Aresti Leioan duen eskolan

Sari bi joan barri dira Leioara. Alde batetik, Leioako Kantika Koralak Tolosako Nazioarteko 40. Abesbatzen Lehiaketan bigarren saria irabazi du. Egitarau barrizalea aurkeztu zuten; J. Busto euskaldunaren, T. Stokes kanadarraren edota H. L. Hassler alemaniarraren obrak abestu zituzten besteak beste. Epaimahaiak, eszenaratze zaindua, eta egitaraua aukeratzean, Kantikak egindako apustu arriskutsua baloratu zituen. Bestalde, Andoni Aresti Dantza Eskolak Behargintzak urtero antolatzen duen Lur Barriak saria eskuratu du. Lehiaketa hau, Bermeoaldea, Erandio, Getxo, Leioa, Mungialdea, Txorierra eta Uribe Kostako Behargintzek antolatzen dute kultura ekintzailea eta enpresa barrien sorrera bultzatzeko asmoz. Erandioko "RK Abentura" enpresak, eta Getxoko etorkizuneko dinosauroaren parke tematikoaren proiektuak ere sarituak izan dira. ○

ingurugiroa > beira birziklatzeko sistema barrizalea Uribe Kostan

Larrabasterra auzoa

Uribe Kostako Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren ekimenez, beira biltzeko 70 ontzi barri jarri dituzte Sopelana, Berango, Barrika, Lemoiz, Gorliz, Plentzia eta Urdulizen. 200 jatekxek eta tabernak erabili ahal izango dituzte ontziak. Gainera, karro bana emango zaio bakoitzari, beira erraz garraiatu ahal izateko. "Ale-hop" izenagaz ezagutzen da beira biltzeko sistema barrizalea; Ezkerraldeko hainbat herritan erabili izan da azken urtean. Honez gain, etxeko olio batzeko 17 ontzi barri ere jarri dituzte. Orain arte, etxez etxe batu da olio hilean behin; sistema barriari esker, edozein egunetan eta ordutan hustu ahal izango dira etxean betetako poteak. 2005eko urritik, 10.252 litro olio birziklatu dira Uribe Kostan. ○

saiaz getaria



HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



..harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

A-25> Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Uribe Kostako herri guztietan antolatuta dituzte ekitaldiak Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela eta .

Ez da albiste ona horrelako egun bat “ospatu” behar izatea. Hobe litzateke, XXI. mendeko gizartearen gaitzetako bat den emakumeen kontrakoa indarkeria behin betiko desagertuko balitz; hori bai izango litzatekeela ospakizunetarako arrazoia. Baina, zoritxarrez, egunkarietako orriak hurbileko zein urruneko emakumeek jasandako erasoak albisteak bezala betetzen jarraitzen dituzte; gaitz honen kontra borrokatzen jarraitu behar dute, bai emakumeek baita gizonek ere. Hori dela eta, azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna izendatu zuen Nazio Batuen Batzar Orokorrak 1999an. Horren harira, ekitaldi andana antolatuta dituzte Uribe Kostako herri guztietan. 25ean egingo diren elkarretaratzeaz gain, tailerrak, hitzaldiak, antzerkiak eta zine proiektzioak egingo dituzte. Erandion adibidez, “*Zer dakigu emakumeenganako indarkeriaz?*” izenburuko hitzaldia emango du Vanessa Galego Emakumeen kontrako Indarkerian esku hartzean adituak, hilaren 27an. Berangon, gaia lantzeko tailerrak eta jokoak egingo dituzte ludotekako gazteek. Lemoizen, zine foruma egongo da azaroaren 21ean. Sopelan, GIZONDUZ aterpea jarriko dute 21ean Udaletxeko Enparantzan. Getxon aldiz, tratatu txarrak jasan dituzten emakumeei 24 orduz arreta eskaintzeko telefonoa aurkeztuko dute Erromoko Kultur Etxean. Ondoko zutabea UKko erredakziora heldu zaizkigun deialdiak dituzue. ○

Ekitaldiak**ERANDIO**

- **Isileko elkarretaratzea:** A-25. 12:00etan Udaletxe aurrean.
- **Hitzaldia:** “*Zer dakigu emakumeenganako indarkeriaz?*”. A-27. 19:00etan Altzaga Merkatuan.

LEIOA

- **Lehiaketa:** A-25eko logoa aukeratzeko DBHko ikasleen arteko lehiaketa.
- **Elkarretaratzea:** A-25. 12:00etan Udaletxean.
- **Topagunea:** Gizonei zuzenduta. Maiatzean.

GETXO

- **Elkarretaratzea:** A-25. 19:30ean Bizkaia Zubiaren plazan (aurretik, trapezio erakustaldia).
- **Martxa:** Algortako emakume gazteen asanbladaren martxa. A-25. 18:00etan, Telletxetik Bizkaia Zubi plazara.
- **Aurkezpena:** Tratu txarrak jasan dituzten emakumei 24 orduz arreta egiteko telefonoa. A-19. 19:30ean Erromoko Kultur Etxean.
- **Hitzaldia:** “*Rolak birdefinitzea: maskulinitatea, gizonak eta indarkeria*”. A-27. 19:00etan Nagusien Etxean.

SOPELANA

- **Gizonduz aterpea:** A-21. Udaletxe plazan.
- **Elkarretaratzea:** Adierazpen ofizialaren eta Itzartu emakume taldearen gogoetaren irakurketa. A-25. 19:00etan Udaletxe plazan.
- **Ipuin kontalaria:** A-27. 19:00etan Udaletxeko Hall-ean.

PLENTZIA

- **Ipuin kontalaria:** Apika taldearen “*Akabo!*” lana Mankomunitatearen eskutik. A-17. 18:00etan Goñi Portalen.

LEMOIZ

- **Zine-foruma:** A-21. 18:00etan Kultur Etxean.



“Behin baino gehiagotan erosi gura izan didate, baina ez dut saldu; badakit ez didatela balio duena emango”

Edwin Vilca > Uribe Kostako bizikleta ezagunenaren jabea

Ez zaio ezer falta. Kolore guztietako argiak, pegatinak, irratia, GPS-a, haize errota, telefonoa... baita ikurrina eta Athleticen bandera ere. Begiei ihes egiten ez dion horietakoa da Edwin Villcaren bizikleta. Orain dela hiru urte etorri zen Boliviatik gaztea, eta Leioan bizi da ordutik. Hala ere, Uribe Kosta osoan zehar ibiltzen da kalean gora eta kalean behera, beti bizikleta gainean. Potosi hirian, Villcaren jaioterrian, denek apaintzen dituzte euren kotxeak, kamioiak eta bizikletak: “*Obitura da. Han bizi nintzanean 40 kiloko bizikleta neukan, berunezkoa; hemengoak aldiz, 20 kilo baino ez du pisatzen; aluminiozkoa da*”. Dendetan aurkitzen duenagaz apaintzen du: “*Behin baino gehiagotan erosi gura izan didate, baina ez dut saldu; badakit ez didatela balio duena emango*”. Bolivian, 150 euro gastatu nituen guztira; hemen aldiz, 3.000 euro”. Garaiaren arabera aldatzen da bizikleta: “*Orain Gabonetako argiak jarri dizkiot. Motor txiki bat jartzea pentsatu dut, baina kotxea erostekotan nago eta hobe dut itxarotzea*”. Lau gurgpilekoa lortzen duenean ez pentsa apaingarri gutxiago jarriko dizkionik: “*Bolivian kamioia neukan, goitik behera apainduta hori ere. Hona etorri ahal izateko saldu behar izan nuen*”. Kamioiaz gain, badago faltan duen beste gauza bat: “*Hemen ezin da zanatarik egin; ez etxean, ezta kalean ere*”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 067
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Imprimatze eta plano kopiak •
Karteak kolorez eta z/b •
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



Hamargarren urteurrena

Eukal Kulturaren Jardunaldiak prest dauzka Udal Euskara Zerbitzuak; oro har **azaroaren 21etik abenduaren 8ra** bitartean hainbat kultur arlotako **ekitaldi andana** egongo da gozagai

Udal Euskara Zerbitzuak, udalerriko hainbat elkarteren laguntzagaz, X. Euskal Kulturaren Jardunaldien egitaraua prest dauka. Musika, lehiaketak, umore ikuskizunak, kultur arteko karaokeak, bertso saioak, pailazoen antzerkiak, talentu barrientzako kastina... hamaika koloretako ekimenak batzen ditu aurtengo programak.

Euskararen Egunaren (abenduak 3) hari- antolatzen hasi ziren ekimenak gehiagotuz joan dira urteen joan-etorrian; egun bateko ospakizunak, aste osoko jardunaldiei pasa zien lekukoa, eta badira urte batzuk aste beteko muga igaro zutenetik. Bidean, Euskara Jardunaldiak Euskal Kultur Jardunaldien izena hartu zuten.

Egitarauari begira, esan daiteke dagoeneko ekintzak hasi direla, ekitaldiak hilaren 21etik aurrera egingo badira ere. Izan ere, *bdzu amisk?* III. sms eta bideo lehiaketan izena emateko epea zabalik dago (hilaren 30era arte; informazioa UK 146an). Zelanbait, VII. Nazioarteko Trikitixa jaialdiak emango die hasiera jardunaldiei (hilak 21, 20:00; Andres Isasi Musika Eskola; 6 euro), eta bertan parte hartuko dute Spraoi (Irlanda), Menta Fresca Danza (Italia), Pandeiro Furado (Galizia), Arantzarte Dantza (Bizkaia), Sasi Dantza (Gipuzkoa) eta Zpeiz Mukaki (Iparralde) taldeek. Ostean, Areetako Glass tabernan *Trikitixa Sessioa* egongo da. Hilaren 26an, Sendiren ekimenez, gurasoentzat eta umeentzat Pizza lantegia egongo da (Bidebitarte txokoa, 18:00;



VII. Nazioarteko Trikitixa jaialdia hilaren 21ean egingo da Andres Isasi Musika Eskolan (20:00)

izen-ematea: hilaren 24ra arte). Hurrengo eguna, Komeriaren Klubaren txanda izango da; Xabi Payak aurkeztuko duen umorezko ikuskizunaren aktoreak dira: Ana Elordi, Iban Garate, Aitziber Garmendia, Ane Zabala, Galder Perez eta Jon Apaolaza (The Piper's taberna, 20:00). Hilaren azken barikua izango da Euskara Showaren eguna (Agortako Kasinoa, 20:30). Ostean, Julen

«Trikitixa jaialdia, Euskara showa, literatura eta pizza lantegiak, Komeriaren Kluba, txapelketarako bertso saioa...»

Gabiriak emango duen Literatura lantegia egingo da (abenduak 2-3, 20:00; Aldai patronatua; alde zuzenetik izena eman). Euskararen Egunerako trikitiantu gosaria (10:00), Kantukafea (17:00) eta kanta emanaldia (20:00) antolatu dituzte The Piper's-en.

Biharamunean, UK proiektatzen ekimena egongo da (ikus 25 orr.) eta abenduaren 5ean Izarren distira kastina eta gala, "talentu barrientzako" aukera paregabea (Andres Isasi; 19:30; gonbidapenak Villamonten). Abenduaren 7ko Bizkaiko Bertsolari txapelketarako azken finalurrekoa ere Santa Eugenia plazan izango da (17:30). Eta jardunaldiak amaitzeko Txirri, Mirri eta Txirribiton juniorren ikuskizunak (hilak 8; 12:30, 17:30; Santa Eugenia plaza; 3,5 euro). ○

Datu batzuk

- **Informazio gehiago:** www.getxo.net
- **Bizarra Lepoan:** 94 491 43 57 edo bizarralepoan@euskalnet.net
- **Sarrerak:** Villamonteko kultur etxea edo BBKren orotariko kutxazainak

Itxas Argia elkarteak

urrezko ezteiak ospatuko ditu ekitaldi andanagaz



Informazio gehiago: www.itxas-argia.com

Getxoko Itxas Argia kultur elkarteak 50 urte betetzen ditu aurten; azaro honetan, hain zuzen ere, bete da mende erdia elkartea sortzeko lehengo bilera "ofiziala" egin zutenetik. 1958ko azaroaren 27an herriko gazte talde batek deituta elkartea sortzeko batzarra egin zuten Andra Mariko eskolatan. Abenduko beste bilera batean 60 bat lagun bildu ziren, gidarien artean zeuden Damian Ayo eta Julian Villalabeitia, eta elkarteko arduradunak aukeratu zituzten: Tomas Aldama (presidentea), Juan Madariaga (presidenteordea); Jose Antonio Bilbao (idazkaria) eta Jose Luis Sangroniz (diruzaina). Hurrengo topaketa batean elkartea arloka (kultur arloa, dantza arloa, antzerkia, abesbatza, kirola, liburutegia, andrazkoena etab.) banatzeko erabakia hartu zuten eta bazkide bakoitzaren kuota ere bai: helduek 3 pta eta haurrek zein andrazkoek 2 pta. Batzar

hartan IV. Paella Eguna antolatzeko ardura ere hartu zuen elkarteak. Hurrengo urteko lehenengo hilabeteetan, mendi taldeak postontzi bako mendietan postontziak jartzeko ekimena abiatu zuten; lehengoa Lañomendin ipini zuten. Horren albotik, elkartearen ezkutua ere aukeratu zuten: Genaro Serranok aurkeztua eta Getxoko Itxas Argia lema zeroana. Halere, elkartea ez zen 1970era arte erregistratu. Hala, 50 urte egin ditu urtez urte haziz, hamaika ekimen antolatzen eta bultzatzen dituen eta 500 bazkidek gorako duen elkarteak.

Urteurren borobila ospatzeko hainbat ekimen antolatuko dituzte aurten eta datorren urtean; lehena hilaren 22ko (20:00; Andra Mariko kiroldegia) dantza erakustaldia izango da, eta Rocamador (Zangotza) eta Algara (Gasteiz) taldeak gonbidatu dituzte (gainontzeko ekitaldiak aurrerago zehaztuko dituzte). ○

GGKE-ENTZAT UDAL DIRULAGUNTZAK

Udalerriko GGKEen funtzionamendu gastuak eta kudeaketa hobetze aldera dirulaguntzak eskatzeko epea zabaldu du Getxoko Udalak. Guztira 18.000 euro banatuko ditu Udalak eta GGKE bakoitzak gehienez 5.000 euroko laguntza jaso ahal du. Laguntzen helburua ez da "inola ere eskatzaileen mantentze gastuak erabat finantzatzea". Eskaerak udaletxeko Erregistro Orokorrean edota Herritaren Bulegoetan egin beharko dituzte.

EREAGAKO ERAIKINAREN EGITASMOAREN AUZIA

Getxoko Udalean oposizioan dauden alderdi nagusiek, PPK eta PSE-EEK, Ereagako "La Terraza" eta Sorosleen eraikina bota eta bertan erabilera anitzeko eraikin berria egiteko egitasmoaren kontrako jarrera azaldu dute. Bestalde, eraikin berriaren aurka mila bat sinadura bildu direla ere jakinarazi dute hainbat komunikabidek. PSE-EEK eraikina botatzeko "beharrezko tramite bat" ez betetzea leporatu dio EAJko Gobernu taldeari, "xehetasun azterketa" ez egitea hain zuzen. Ondorioz, "eraikina botatzeko adostutako ekintza administratibo guztiak gelditze" eskatu dute, bestela epaitegi-tara joko dutela. Dena dela, Udaletik "prozesua legala" dela adierazi dute.

MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDENAK ZAINTEKO IKASTAROA

Emakumearen Sustapenerako Bizkaiko Zentroaren ekimenez "Mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzarako ikastaroa" emango dute Getxon. Aiboa institutuan eskainiko dute hil honetatik maiztara bitartean (19:00-21:30) eta eskola teorikoak zein praktikoak emango dituzte. Formakuntza atalen artean hurrengoak daude: norberaren ezagutza eta autoestimua, etxeko lanak, lanbide orientazioa, osasun arreta etab.

Harremanetarako: 94 423 64 94
www.fundacioncpmb.org

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Garaizar
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Illaeta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Pedro Guallar Otazua > Organo jolea, irakaslea eta zuzendaria

“Organoagaz “kuriositate” moduan hasi nintzen, banekien profesio legez ez zuela etorkizunik”



Pedro Guallar bere etxeko organoaren aurrean

Orain 27 urte ogibideak ekarri zuen Bergaratik Bizkaira Pedro Guallar, Juan Crisostomo Arriaga Bilboko Kontserbatorioan organo (piano eta harmonia) irakasle lanean hasi zenean, eta 12 urte dira algortartu zela. Enpresa-ikasketak ere egin zituen; bien uztarketak, zein egindako lanak eroan dute goiko postuetara, uztailetik Kontserbatorioko zuzendari da.

—Noiz hasi zinen organoa jotzen?

—Lehendabizi pianoa jotzen ikasi nuen Bergaran, gero Donostiako Kontserbatorioan organoa eta konposizioa ikasi nituen, Elizondo eta Escudero maisuakaz. Beste ikasturte bi egin nituen Bartzelonan, Montserrat Torrent organo joleagaz; beste hainbat ikastaro atzerrian. Pianoa ikasten amaitzean, zalantza izan nuen goi mailako ikasketak pianoagaz jarraitu ala ez, baina horretarako Madrilera, kanpora, joan behar nuen. Gaur egun hurbilago dugu horretarako aukera, Musikene-eta. Organoa txikitatik entzun nuen Bergaran, han badago instrumentu ederra. “Kuriositate” moduan hasi nintzen, banekien profesio legez ez zuela etorkizunik.

—Ezjakintasunetik; organoa eta eliza elka-

rrri lotuta irudikatzen ditugu; topikoa da?

—Ez dakit topikoa ala errealitatea den. Badago organo handi eta ederra Euskalduna Jauregian; gainontzekoak elizetakoak dira, hori da errealitatea. Organo txikiak, “etxe-koak” ere badira. Organoak badauka bere musika, elizakoa ez dena. Bestalde, organo jole liturgiko bezala ere badihardut, Trinitarios elizan domekatan, eta Mesedeetakoan ere bai. Areetan hileko hirugarren zapatuan (arrastiko meza ostean) kontzertutxo eskaintzen dugu, “Momentos Musicales” deritzona. Taldetxo batzen gara, instrumentu ezberdinakaz; helburua zaletasun apur bat sortzea da. Azaroan (hilak 15) pieza oso bixia joko dut, Juan Crisostomo Arriagaren sinfonia, nik organorako egokitu dudana, kuriosoa izango da. Arriaga oso gazte hil zen,

20 urteagaz, eta sinfonia bakarra idatzi zuen; diotenez 10-15 urte gehiago bizi izan balitz Mozart lakoa izan zitekeen!

—Getxoko organoak bereziak dira, ezta?

—Interesgarriena San Nikolasekoa da, oraintsu bete ditu 100 urte. Mesedeetako handiena da; ez du esan gura onena denik. Organoen kalitatea ez datza tamainan. Guztiak dira ezberdinak, eta urteen arabera ezaugarri desberdinak dituzte. Gurean, asko organo sinfonikoak dira, erromantikoak, 100 urte edo gehiagokoak. Soinuaren kalitatea egilearen arabera ere bada. Pieza aukeratzeko orduan, ondo ezagutu behar dugu organoa bera; instrumentuaren arabera pieza

«Organoak ere badauka bere musika, elizakoa ez dena»

batzuk egokiagoak dira beste batzuk baino.

—Esku artean izan duzun gogokoena?

—Bakoitzak bere ezaugarriak dauzka. Euskaldunakoa, Alemanian egina, kalitate alde-rik ia perfektua da, lekua da apur bat arraroa. Santiago katedralekoa berezia da, oso barria; Juan Sebastian Bachen musika jotzeko aproposa. Begoñakoa zaharragoa, txikiagoa, baina Cavalle-Coll egile famatuarena. Aipatzekoa, Ziortzako kolegiatakoa (Bizkaia), oso zaharra, interesgarria; 1686koa, txiki-txikia; benetako altxorra. Interesgarria da zaharra delako, eta hor jotzen den musika oso-oso murriztuta dago, teklaturaino ez dauka, antzinako musika jotzen da. Gure erroka da kasu bakoitzean instrumentua apur bat ezagutu, eta musika aukeratzea; musika bera ezin dugu tresna guztietan jo. Garai batean organo ekliptikoak deiturikoak egin ziren, edozein motatako musika jotzeko balio zutenak, baina kasu horietan obrek pertsonalitatea galtzen dute. ○

Komikia bizi denekoa

Getxoko Komiki eta Manga azoka indartsu dator aurten, hilaren azkeneko aste akabuan



Informazio gehiago: www.salondelcomicdegetxo.net

Hilaren 28, 29 eta 30ean egingo da aurten VII. Komiki eta Manga azoka Areetako Geltoki plazan eta Erromoko Santa Eugenia plazan. Hala, karpa bi ipiniko dituzte aurten-goan, aipaturako leku bakoitzean bana; izan ere, mangari (ekialdeko komiki mota berezia) begirakoak areto propioa izango du. Azokaren ordutegia hurrengo ia izango da: goizean 11:00etatik 14:30era eta arrastian 05:00etatik 09:00etara; eta sarrerek 2,5 euroko prezioa izango dute. Liburudenda berezituena, editorialen, banatzaileen, fanzineen eta abarren ehun erakusmahai inguru egongo dira, eta hamaika ekitaldi antolatuta dituzte: hitzaldiak,

proiektzioak, lanen aurkezpenak, lantegiak erakusketak (kultur etxeetan eta udalerriko hainbat tabernatan; hilaren 30era arte), egileen sinatze-egunak etab. Victor Santos komikigile valentziarrak egin du aurtengo Azoka iragar-tzen duen kartela, eta ez da Azokan parte hartuko duen valentziar bakarra izango, besteak beste Victoria Frances eta Paco Roca ere bertaratuko direlako. Bestalde, Azokaren ohiko omenaldia aurten Carlos Gimenez komikigile madrildarrak, 1977an jaio, eta iaz atek itxi zituen euskarazko haur-gazte *Ipurbeltz* komiki aldizkariak jasoko dute. Egitarau osoa etab. Azokaren sareko atarian irakur daiteke. ○

EUSKARAREN BARRI EMATEKO GIDA KALERATU DU UDALAK

Badakizu zein den gure altxorrik handiena? izeneko gida kaleratu dute Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Turismo Bulegoak. Herria bisitatzeko bertoko bertoko hizkuntza daukagula ezagutarazteko helburuagaz sortu dute gida. Gainera, bisitariak euskara erabiltzera animatzeko euskarazko berben hiztegi txikia sartu dute. 3.000 ale kaleratuko ditu Udalak eta Turismo Bulegoan, hoteletan eta kirol eta kultur ekitaldietan egongo dira eskuragarri. Bestalde, kaleratu barri duten turismo balantzearen arabera, bisitari atzeritarren kopurua %14,7 igo da 2008an. Guztira, 22.896 pertsona atenditu zituzten turismo udal bulegoetan. Hala ere, ostatuak ez zituzten emaitza onak lortu 2007koekin alderatuz gero.

DANTZA KOADERNOEN 3. ALEA KALEAN

Getxo Danza Kultur Elkarteak Dantza Koaderno 3. alea kaleratu barri du “Dantzaren Pedagogia” izenpean. Horretan, dantzaren irakasketari buruzko alde teoriko eta praktikoak landu dituzte. Gainera, dantzari profesionalentzako interesgarria izan daitekeen informazioa bildu dute. Liburua Uribe Kostako eskoletan enkargatu daiteke. Elkarteak lagunek iragarri dutenez, abenduan 4. alea kaleratuko dute.

Informazio gehiago: danzagetxo@gmail.com

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

Getxoko Udalak kaleratu duen prentsa oharraren arabera, parte hartze handia izan dute Ondarearen Europako Jardunaldiak Getxon. 623 pertsonak hartu zuten parte Portu Zaharreko bisita gidatuetan. Bisitarien %97a bizkaitarrak izan ziren eta horietatik %29a getxotarrak. Gainera, parte hartzaileek oso positiboki baloratu dituzte bisitak eta gehien gustatu zaiena formatu antzetzua aukeratu izana izan da.



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Jose Ignacio Sarria > San Juan Bautista Abesbatzaren sortzailea

“Gazteak dira; koru-profil garrantzitsua daukate, eta errepertorio konplexuak muntatzeko gai dira”

Orain 40 urte sortu zuten San Juan Bautista Abesbatza; sorreratik izan da koru emankorra. Besteak beste, 1972an irabazi zuen Torreviejako (Alacant) Habanera txapelketa. Algortako Bihotz Alaik irabazi zuen Polifoniakoa orduan. Udal Musika Eskolako presidente eta Abesbatzaren sortzaile den Jose Ignacio Sarriak kontatu digu.

—Dagoeneko 40 urte...

—Bai, 40 urteko historia luzea dauka San Juan Bautista Abesbatzak. Orain fase barri bati ekingo dio, Leioako Kantika Korlagaz hasi genuen zikloa ixtera dator. Kantika haurren korua da, apartekoa. Handik pasa ostean, formazio eta esperientzia handia metatzen dute, eta Kantikatik, San Juan Bautista Abesbatzara doaz. Beraz, gazteek osatzen dute abesbatza, baina musika eta koru-profil oso garrantzitsua daukate, lan gutxiagaz errepertorio konplexuak muntatzeko gai dira, zailtasun handirik barik.

—Zertan datza aipatu duzun fase barria?

—Hemendik aurrera Udal Musika Eskola barnekoa izango da San Juan Bautista Abesbatza, bere osotasunean. Kantika eta Kantoria emakumeen abesbatza ere bertakoa dira. Beraz, nagusien koru biak betetzen dituzte Kantikan parte hartu duten haurrek.



Azaroaren 28an kontzertua eskainiko du, Sarriak sortu zuen San Juan Bautista Abesbatzak

Basilio Astulezek zuzentzen ditu hirurak.

—Beraz, zerikusi gutxi orain 40 urtekoagaz alderatuz gero.

—Bai, hainbeste aldatu da jendartea azken 40 urteotan... Garai hartan ekimen musikala egiteaz gain, ekimen soziala ere egiten zuten koruak. Diktaduraren garaia zen, edozein ekimen egiten zuten elkarteek, beren ekimenez herri nortasuna gordetzen zuten. Gaur egun hori ez da existitzen, koruaren ekimena musikala da. Sorreran formakuntza musika-

lik ez zegoen, eta ahalegin handiagoa egin behar genuen abestiak muntatzeko. Ilusio handia genuen, lan handiagaz lortu genituen sariak. Egun ilusioa ere badute, baina errepertorio konplexuagoak abes ditzakete.

—Kontzertu berezi bategaz ospatu behar duzue urteurrena, ezta?

—Bai, azaroaren 28an izango da, San Juan Bautista elizan, 20:30ean. Abesbatzako ehun partaide ohi espero ditugu, elkarregaz egoteko. Ekitaldi hunkigarria izango da. ○

Sekula ez da goizegi

Haurtxoentzako I. Antzerki Zikloa egingo dute Kultur Leioan azaroaren 22an eta 23an



Teatro Paraisok Lorategian lana antzeztuko du azaroaren 23an, Kultur Leioako Ambigu aretoan

Sekula ez da goizegi, hala iragarri dute Haurtxoentzako I. Antzerki Zikloa. Hilaren 22an eta 23an egingo dute Ambigu aretoan, Kultur Leioan. Haurtxoak antzerkira hurbildu gura dituzte, “*ondo pasa dezaten eta irudimena eta sentiberatasuna modu dibertigarrian gara ditzaten*”.

Lan bi antzeztuko dute. Frantziako Carré Blanc taldeak eskainiko du lehenengo, *Chiffonnade*. Koreografia bat da zehazki, eta oihala erabiliko dute materia gisa. “*Oihala ukitu, tximurtu, tolestu edo urratu ahal da, eta oihalakaz moztortuko dira*”. Pertsonaia esfera baten barruan kokatuko da. Oihalak dantzarako kide eta eraikuntzarako material bihur-

tuko dira, Kultur Leioatik azaldu dutenez. Azaroaren 22an antzeztuko dute, 12:00etan eta 18:30ean.

Lorategian izango da zikloaren bigarren lana, azaroaren 23an. Teatro Paraiso talde eskaldunak antzeztuko du. Emakume bat topatuko dute haurtxoek lorategi batean eserita, ametsetan. Gizon bat iritsi, eta irudien mundutik bidaiatzera gonbidatuko du. Oihal bat topatuko dute zuhaitzen artean. Irudiak sortuko dira oihal horretan, eta eraldatzen hasiko dira, emozioak plazaratuz eta islatuz. Gaztelaniz egingo dute 12:30ean eta euskaraz 18:30ean. Lan bietarako sarrerak 4 euroan salduko dituzte Kultur Leioan. ○

AZAROAREN 30EAN EKINGO DIOTE EUSKARAREN ASTEARI

Udalak hainbat ekimen antolatuko ditu Euskararen Astea dela eta. Azaroaren 30ean hasiko dira, domekaz, Kalekantutako ekimenagaz. Ondorengo astean euskal dantzak eta euskararen azoka egingo dituzte, besteak beste. Ikastetxe publikoetan kirola euskaraz egiteko beta izango dute haurrek arratsaldero.

IKASLE ABERTZALEAK TALDEA ASKARTZAN

Badu talde barria Ikasle Abertzaleak-ek, Askartza Claret ikastetxean. Ukberri web gunean plazaratu dutenez, “*buru-belarri*” dabilta “*irakasleen kontrola salatzen, eta ikasleon eskubideak aldarrikatzen*”, eta arazoak ekarri dizkie beraien jarduerak. Ikastetxeko arduradunek eta irakasleek kartelak kendu, elkartzeko baimenik eman ez eta “*presio psikologikoa*” egiten dietela salatu dute, baina dagoeneko, lehenengo hitzaldia egin dute infantilizazioari buruzkoa, baita arrakasta lortu ere, denentzako lekurik barik lotu zirelako.

GAZTELEKUA IPINIKO DUTE ALDAPABARRENAN

Udalak Gaztelekua zabalduko du uda baino lehen Aldapabarrena kaleko etxe barrietan; 517 metro koadro izango du. Ikasketa gela, erabilera anitzeko gela, nagusienentzako zein txikiakentzako gelak, informatika gunea, elkarteentzako bulegoa, administrazio gunea, sukaldaria, komunak eta artxiboak izango ditu.

UDALAK BADU WEB ATARI BARRIA

Hainbat hilabeteren ostean, barrituta dator Udalaren interneteko ataria. Egun osoan zehar eskainiko du zerbitzua prozesua amaitutakoan, lau urte barru. Orotara, milioi bi euro inbertituko dituzte web ataria berregiten Udalak, Bizkaiko Aldundiak eta Espainiako Gobernuak.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO ERROTULUAK eta INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorbidea. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Ainhoa Mendibil eta Unai Txurruka > Ikasle Abertzaleak

“20 urteotan ikasle mugimendutik igaro diren guztiek egin diote bere ekarpena Euskal Eskola Nazionalari”

Erandion ospatuko du IA erakundeak Ikasle Eguna aurten, 20 urte bete dituen honetan. Azaroaren 22an izango da, zapatua. Ikasleen topaketak, bazkaria, kontzertuak... egitaraua prest dago bi hamarkadako ibilbidea ospatzeko.

—Ikasle Eguna ospatu behar duzue zapatuan Erandion, zer ote da hori?

—Orain dela urte dexente hasi zen, festibal modura: jaialdi erraldoia ikasleei begira, kontzertuak, festa... Baina urtez urte, gure borroka indartu eta egonkortu den heinean, Ikasle Egunak pisu politikoa hartu du. Iaz eta aurten egun osoko egitaraua prestatu dugu. Topaketak egingo ditugu, jaiaz gain, ikasleok batzeko arrazoi dira eta.

—Aurten gainera, IAk 20 urte bete ditu.

—Bai, 1968an sortu zen IA eta beste hainbat dinamikaren artean, Ikasle Eguna kokatzen dugu hogei urte horiek ospatzeko egun edo puntu gorenen moduan.

—Beraz, badago zer ospatua.

—Bai, bai. Asko lortu dugu hogei urteotan, eta jarraituko dugu borrokan, baina badira ospatzeko momentuak. Ospatzeko asko daukagu, ospatuko dugu, eta gero borrokan jarraituko dugu.

—Jardunaldiak aipatu dituzu.

—Iaz bezala, goizeko 10:00etan hasiko dira



Azaroaren 22an Erandion izango da aurtengo Ikasle Eguna

Euskal Ikasleen Topaketak. *Elkarrengandik ikasiz, Euskal Eskola Nazionala eraiki* izango dute leloa, hori egiten ahaleginduko gara. Toki askotako ikasleak batuko gara, lekuan lekuko egoerak daude, beraz, elkarrengandik ikasi, eta esperientziak partekatuzko aukera paregabea izango da.

—Baina beste hainbat ekimen ere egingo duzue.

—Topaketakaz hasiko da eguna, eta goizean kale animazioa eta umeentzako jolasak izango dira. Bazkariaren ostean, arrastian, ber-

tso-saioa, musika maratoia, poteo-kalejira elektrotxarangagaz, manifestazioa eta ekitaldia egingo ditugu. Kontzertuak 21:30ean hasiko dira: Anger, Obrint Pass, Piperrak, SA eta Amaiur karpa handian, eta Aritz Sound System eta Dj Bull txikian.

—Beste zerbait aipatu gura zenuke?

—Eskerrak eman 20 urteotan ikasle mugimendutik igaro diren guztiei, beraiek eta aurrera egin duten borroka guztiek eskaini baitiote ekarpen txikia, denok helburu daukagun Euskal Eskola Nazionalari. ○

Hondakin-ura, arazorik ez

Agarre, Fano, Ariaga eta Iberre auzoak saneamendu sare orokorragaz lotuko dituzte



Agarre zonaldean 2009an hasiko dituzte lanak

Saneamendu sareagaz lotuta egongo dira erandioztarren %95 hemendik bost urtera, eta ondorioz, “hondakin-ura ez da arazo izango”, Asier San Nicolas Hirigintza zinegotziak esan duenez. Izan ere, Fano, Agarre, Iberre eta Ariaga auzoak saneamendu sare orokorragaz lotuko dituzte. Guztira 3,5 milioi euro inbertituko dute azpiegitura barriak eraikitzeko lanetan. Datorren urtean hasi eta faseka egingo dituzte, harik eta Erandioko %80 sare orokorrera lotu arte.

Agarre zonaldean 2009an ekingo diete lanei, eta horietarako 600.000 euro inbertituko dute. Fanon ere datorren urtea amaitu baino lehen hasiko dituzte obrak, zonalde horretan 1,2 milioi euro gastatuko dute.

Goiherriko goi parte eta Mota, ordea, ezinezkoa izango ei da sare orokorragaz lotzea, hainbat arrazoi medio. Goiherriren kasuan, bertako orografiak egiten du ezinezko lotura. Motaren kasuan, barriz, lurren jabe batzuek akordiorik ez dute lortu, eta egitasmoa geldidago. Halere, Hirigintza zinegotziak ez du baztertzeko etorkizunean berrartzea.

Lan bakoitza sei eta zortzi hilabete artean burutu beharko dute. Aldundiari eskatuko dizkiete diru-laguntzak; aurrekontuaren %70 eman ohi du Jaurilaritzak horrelakoetan, zinegotziak azaldu duenez. Lanak burutu bitartean zonalde horietan guztietan saneamendua hobetzeko zein alternatiba abiatu pentsatzen dabilta Udaletxea eta Ur-Partzuergoa. ○

AUTODEFENTSA IKASTAROAN BADAGO IZENA EMATERIK

Azaroaren 27a da azken eguna emakumeentzako autodefentsa ikastaroan izena emateko. Ikastaroa doan izango da, herriko emakume guztiei irekia, baina plazak mugatuak dira. Abenduan egingo dituzte, Altzagan lehenengo, eta Astrabudun ondoren.

Izena emateko: 944 175 616
edo berdintasuna@erandioko-udala.net

ASTRABUDUKO FOTOCLUB SORTU DUTE

Herriko hainbat argazkilarik bat egin du Astrabuduko FotoClub egitasmoagaz. Azaroaren 3an sortu zuten elkarteak; Kristiñe Piedra Perez izendatu zuten lehendakari. Eduardo Camino Pinto izango da lehendakariorde, Juan Carlos Sancho Folgueiras idazkari eta Luis Alvarez Frances diruzain. Bokal gisa, barriz, Jose Manuel Rodriguez Santos, Javier Diez Porras, Maria Victoria Alba Esteban eta Santiago Neira Jodrak jardungo dute.

BEZEROENTZAKO LEIALTASUN TXARTELA ATERA DUTE DENDARIEK

Erandioko Merkataritza Txartela atera dute herriko dendariak, hirurogeita hamar, zehazki. Helburua da bezeroek herrian erostea, merkataritza-guneetara joan beharrean. Sariak, deskontuak eta abantailak eskainiko dituzte horretarako.

UDAL-TASAK ETA ZERGAK %4 GARESTIAGO

Datorren urtean %4 igoko dituzte udal-tasak eta zergak, hala erabaki du Udalak Osoko Bilkuran. Igoera aurreikusitako KPltik gertu ei dago. Bestalde, auto gehienentzako zirkulazio-zerga bere horretan utziko dute.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategi zainketa
DEITU!

e-posta: basolanak@terra.es

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Eskukoa

Asier: 629 411 838

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



www.arlan.biz

HAURRESKOLA PUBLIKOA ZABALTZEKO TRAMITEAK BIZKORTUKO DITU UDALAK

Azaroko Osoko Bilkuran Sopelana Haurreskola-Partzuergoan sartzeko tramiteak egingo ditu Udalak, urriaren amaierako Osoko Bilkuran adostu zutenaren arabera; aho batez erabaki zuten. Helburua da urte bitik beherako umeentzako lehenengo haurreskola publikoa zabaltzea herrian, eta horretarako tramiteak bizkortzea. Eusko Alkartasunak aurkeztu zuen mozio baten ondorioz hartu zuten erabakia. Mozio horretan, gainera, haurreskolaren eraikinaren egitasmoa Partzuergoak eskatutakoari moldatzeko ere eskatu zuen Leire Pinedo zinegotziak.

ENPLEGU GUNEA DAUKA GAZTE INFORMAZIO BULEGOAK

Behargintzak eskaintzen dituen baliadideei buruzko informazioa eskuragarri dago Gazte Bulegoan, Uribe Kostako Behargintzagaz lortutako akordioari esker. Besteak beste, ondoko informazioa aurki daiteke bertan: enpleguari buruzko Informazioa, lanbide zerbitzuaren lan eskaintzak, trebakuntza ikastaroak, orientazioa eta enpresak sortzeko laguntzak eta formazioa. Informazio gehiago eskura daiteke 94 406 55 05 telefono zenbakira deituz.

BESTE UDALTZAIN BI IZANGO DITU SOPELAK

Udaltzain ofizialorde postu bat eta udaltzain lanpostu bi sortuko ditu Udalak, "Sopelan suma daitezkeen beharraz bat egiten duen lan jarduerara egokitzeko", urriko Osoko Bilkuran erabaki zuten. Josu Landaluze alkateordeak hartuko du ardura Udaltzainen konfigurazio barria gidatzeko. Gainera, zeregin horretan buru-belarri aritu ahal izateko liberatu dute.

Ikasteko inoiz ez da berandu

Egoitza estreinatu du **Helduen Heziketa Iraunkorrerako ikasgelak** Kultur Etxean



Helduen heziketarako zentroko egoitza barria inauguratu dute Kultur Etxean (Sabino Arana kalea 2)

Badira hamazortzi bat urte Sopelan Helduen Heziketa Iraunkorrerako Zentroko gela zabaldu zutela. Leioan du egoitza nagusia zentroak, orain hogeitaz inguru, eta Eusko Jaurlaritzak beste sei ikasgela zabaltzen joan da inguruko herrietan, Sopelan, Getxon eta Mungian, esaterako. Zipiriñe eskolan hasi ziren, Carmengoan egon dira hamabost urtez, eta irailtik aurrera, Kultur Etxe barrian dabilta, hirugarren solairuan. Azaroaren 5ean inauguratu zuten.

Txikitan ikasteko aukerarik izan ez zuten begira zabaldu zuten zentroa. Askok idazten eta irakurtzen ikasi dute bertan,

eskola-graduatu titulua eskuratu dute horietako batzuk, gainera. Ikas-edukiak aldatuz joan dira, ordea, eta egun bigarren hezkuntzako titulua ateratzeko ikasten dute batzuek (18-20 urte ingurukoak), teknologia barriak, hizkuntzak edo artea ikasten, edo gimnasia mentala egiten dute nagusiagoak. 40 eta 50 urte artekoak dira lagun gehienak. Hortik gorakoak idazketa eta irakurketa hobetzeko ere badoaz ikasgelara.

Guztira 140 lagun inguruk parte hartzen du, sei irakasleren laguntzaz. Bestalde, txangoak ere antolatu ohi dituzte museoak edo erakusketak ikusten joateko. ○

Aritz Larrinaga > Bodyboardlaria

"Munduko eta Europako txapelkun izan gara euskaldunok, pentsaezina orain hamar urte"



Aritz Larrinagak Donosti Bodyboard Air Show txapelketa irabazi zuen urriaren amaieran

Donosti Bodyboard Air Show txapelketa irabazi zuen urrian Aritz Larrinaga sope-loztarrak, bigarren. Munduko onenen artean ei daude euskal bodyboardak. —**Bigarren irabazi duzu Donostiako Air Show txapelketa. Benetako akrobata bihurtu zara?**

—Oso pozik nago. Beno, ez pentsa horrelako gauzetan espezialista naizenik, baina begira, ondo jokatu nuen eta birritan irabazi dut. Agian nik uste baino hobea naiz...

—**Txapelketa berezia da.**

—Bai, oso bitxia. Txapelketak txandaka jokatzeko dira normalean, txandaz txanda finalera heldu arte. Air Showen, berriz, txandaka sartu arren, guztiok guztion kontra aritzen gara maniobrarik ikusgarriena lortzeko, bakoitzaren maniobrarik onena puntuatuko baitute soilik. Lau onenek jokatu dute finala.

—**Baina bodyboarda ez da horren ezaguna, surfagaz alderatuta, esaterako; txapelketek laguntzen dute kirol hau sustatzen?**

—Bai, asko gainera. Donostiako esatera-

ko, medio guztietan ateratzen da, eta asko laguntzen du; txapelketa oso ikusgarria da. Txapelketa guztiak ditut gustuko, baina ikusle moduan hori da ikusgarriena, maniobrarik ikusgarriena bilatzen dugulako. Kirol hau surfa bezain ikusgarria da niretzat, baina askoz ere zabalduago dago surfa. Lehiaketak, ordea, errazagoa da bodyboarda ezagutaraztea. Dena dela, Munduko eta Europako txapelketak irabazi izan ditugu euskaldunok, eta hori lortzea pentsaezina zen orain hamar bat urte; halere, posible dela frogatu dugu.

—**Sopelan badago erreleburik?**

—Beno, ondino ez dago asko nabarmentzen den gazterik inguruan, baina afizio handia dago. Bodyboard eskola txikia daukagu Arrietara hondartzan David Perezek, Antonio Ortizek eta hirurok, interneten gunea ere badaukagu: www.ebeskola.com. Bertan sumatzen dugu sekulako afizioa. Maila polita ematen dute, baina ordu asko aritu beharko dute oraindik maila gorenera iristeko, ez da erraza eta. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

Bentatu 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramango dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

Araitz Zubiaga > Berangoeta Kultur Etxeko ludotekako begiralea

“Gizon eta emakumeek etxean edo kanpoan zein lan egiten dituzten irakatsi gura dugu tailerretan”

Azaro osoa emakumeen aurkako indarkeria salatzen hilabetea da herri guztietan, azaroaren 25a Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna dela eta. Berangoko umek ere gaia landuko dute, ludotekan gauzatuko dituzten tailerren bitartez. Araitz Zubiaga da Berangoeta Kultur Etxeko begiraleetako bat, bertan garatuko dituzte ekimenak.



Araitz Zubiaga eta Estizen Ortiz, Berangoeta Kultur Etxeko ludotekako bi begiraleak

—Indarkeria matxistari buruzko tailerrek egingo dituzue hilabete honetan.

—Bai, azaroaren 25a Genero Indarkeriaren Aurkako Eguna denez, hilabete honetako tailerrek gai horri buruz lantzen gabiltza ludotekan. Astez aste banatu ditugu gaiak. Lehenengoan kontzientzia landu dugu, badaude haur batzuk bereziak direnak, eta dituzten arazoei buruz kontzientzia har dezaten saiatu gara. Bigarren astean emakumearen figura landuko dugu, eta hirugarrenean, gizonarena. Azken astean, barriz, emakumeen aurkako indarkeriari buruz arituko gara. Azaroaren 25a izan behar delako otu zitzagun gai hori lantzea hilabete honetan, horretarako beharra ere bazegoen eta.

—Eta nola egingo duzue?

—Jolas kooperatiboak dira: *rol playing* erako-

ak, zehazteke dauzkagun tailerren batzuk eta gatazkak konpontzeko jolasak. Gehienak antzerkiak eta *rol playing* modukoak dira. Ludoteka etxe bihurtu gura dugu, sukaldeagaz, egongelagaz, komunagaz... Gizon eta emakumeek etxean edo kanpoan zein lan egiten dituzten ikusarazteko asmoa dugu.

—Gai hori lantzen duzuen lehen aldia da Berangon?

—Bai, aurrean gai bat landuko dugu hilabete-ko eta azarokoa horixe izango da. Gainera, tailerrek eta lanketa ondo irtenez gero, gaia

berrir jorratuko genuke datozen urteotan.

—Zuok landuko dituzue tailer zein jolas guztiak?

—Hala da, bai. Berangoeta Kultur Etxeak antolatu ditu, eta bertan gabiltzan bi begiraleok jorratuko ditugu.

—Egunero egingo dituzue?

—Egunero landuko dugu gaia, ludotekan. Umeak gura dutenean datoz, eta beraz, haur desberdinak dira egun bakoitzean. Aste bakoitzean antzeko jolasak egingo ditugu, eta ume askok ezagutuko ditu. ○

Ana Aldana > Zur zizelkaria

2008ko Artisautza Sari Nazionaletan aipamen berezia jaso du Aldanak



Ana Aldana bere lan batzuekin Urdulizen duen tailerlean. Harremanetarako: 670 480 447

Arte Eder ikasketak amaitu bezain laster, zur zizelketan espezializatu zen Ana Aldana; argi zeukan artisautzaren munduan sartu eta egurragaz zuzeneko harremana eduki gura zuela. 18 urte daramatza egurrez arte lanak sortzen. 2001ean tailerra eta denda zabaldu zuen Urdulizen; bertan, enkargu bidez egiten du behar. Lan lerro bi jorratzen ditu; alde batetik, haritz egurrez egindako altzari tradizionalak egiten ditu: “*Honetan aurrerapauso bat eman dut. Betiko teknikak erabilia, diseinu berritzaileak lantzen ditut*”. Modu honetan egindako lan bati esker, aipamen berezia jaso du 2008ko Artisautza Sari Nazionaletan: “*Lau artisauro batu ginen, eta batera egin genuen behar; hori lortzea ez da batera erraza izaten*”. Bestalde, kalitate handiko pinu egurra lan-tzen du: “*Kostuak murriztea eta kolore edo zizelketa detaile txikiak sartzea abalbidetzen dit pinuak*”. Pieza garestiak izango direlaokan, jendea ez da ausartzen eskuz egindako altzariak erosten;

baina, salneurria zein den ikustean, bat baino gehiago animatzen da: “*Eros dezaketeneke, zein ezin dutenek, denek baloratzen dute pieza bakoitzak atzetik daukan lana*”. Ez dago egurra eskuz lantzen jarraitzen duen jende askorik: “*Artisauen erregistroan hiru besterik ez gaude: Erandioko bat, Bilboko bat eta ni*”.

«Urduliz eta Leioako Kultur Etxeetan ikastaroak ematen ditu»

Tailerlean behar egiteaz gain, eskolak ematen ditu Ana Aldanak. Aurrean, Leioako eta Urdulizko Kultur Etxeek antolatutako tailerretan dabil. Bertan, egurra lantzeko dauden aukera guztiak irakasten ditu, norberak gura duen teknika aukera dezan: “*Bakoitzaren garapena oso ezberdina izaten da; gustuko dutenean behar egin eta gura duen bidea hartzen dute ikasleek*”. ○



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarrí 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

AHAL BADA, HONDARTZA MANTENDU GURA DU BARRIKAKO ALKATEAK

Juan Jose Ezpeleta Barrikako alkateak, ahal den bitartean, herriari izena ematen dion hondartza zabalik eta katalogatuta mantendu gura duela adierazi du. Azken hilabeteotan egon diren lur-jausiak direla eta, hondartza deskatalogatzeko eskatu zuen oposizioak, EAEko Kosta Mugatze Erakundeak egindako txosten bat oinarritzat hartuta. Alkatearen eta zenbait auzokideren ustetan, neurri honek arrisku gehiago ekarriko luke, jendeak hondartzara joaten jarraituko baitu deskatalogatuta egon arren.

GRAFFITI TAILERRA GORLIZEN

Endika Abellak 13 eta 28 urte bitarteko gazteentzako graffiti tailerra emango du Gorlizko Kultur Etxeko erakusketa aretoan azaro eta abenduko zapatuetan. Eskolak goizeko 11:00-13:00 izango dira, eta behar izanez gero, Udalak utzitako herriko hormetan lan egingo dute parte hartzaileek.

2. ESKUKO MENDIKO MATERIALA PLENTZIAN

Aurten ere, 2. eskuko mendiko materiala saltzeko merkaturia egingo dute abenduan Plentzian. Erabiltzen ez duzun mendiko materiala badaukazu, Gofi Portalera eroan dezakezu azaroaren 19tik 28ra. Eroandako materiala saltzen ez bada, abenduaren 22 eta 23an jaso ahal izango duzu.

MANKOMUNITATEA

Ipuin lehiaketan parte har daiteke azaroaren 24a arte



8 eta 18 urte bitarteko gazteek har dezakete parte

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak euskarazko ipuin lehiaketa antolatu du. Barrika, Gorliz, Plentzia, Sopelana, Lemoiz edo Urdulizen bizi, zein Zipiriñe eskolan, Gorliz, Lemoiz, Plentzia eta Urdulizko ikastetxeetan, Ander Deuna ikastolan, Urubeko Kosta eta Sopelanako institutuan ikasten duten 8 eta 18 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Partaide bakoitzak lan bakarria aurkez dezake, eta gaia librea izango da. Bost kategorია ezberdinetan lehiatuko dira parte hartzaile-

ak, adinaren arabera. Lanak gutun azal itxi baten barruan aurkeztu behar dira: lanaren egilearen izenordea, zein mailatan ari den ikasten eta lanaren izenburua jarri beharko dira. Gutun-azalaren barruan, aurkezten den lanaren kopia bi eta egilearen datu-pertsonalak egon beharko dira. Mankomunitateko bulegoan (Gatzariñe 2-4, Larrabasterra) edo Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako kultur etxetan entregatu behar dira ipuinak azaroaren 24a baino lehen. ○

Aza. 18 - Abe. 4

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

ERANDIO

► **Pintura erakusketa, Edurne Trabudua.** Azaroaren 17tik 24ra. Josu Murueta Kultur Etxean.

GORLIZ

► **Ertibil Bizkaia 2008.** Hilabete osoan zehar, erakusgelan.

LEIOA

► **Picassoren emakumeak.** Hilabete osoan zehar, Kultur Leioan.

GETXO

► **Komiki eta manga erakusketa, Komiki eta Manga Azoka dela eta.** Azaroaren 30era arte. Algorta, zein Erromoko erakusta aretoetan, eta Satistegi, Jai Alai eta Glass kafetegietan.

ZINEMA

GETXO

► **Zinebi.** Bilboko Nazioarteko Zinemaldiaren atala. Azaroaren 24an eta 25ean, Algortako Kultur Etxean, 19:30ean, doan.

URDULIZ

► **Euskal Zinemaren Zikloa.** Azaroaren 18an eta 26an. 2 euro.

LEMOIZ

► **Zine Foruma.** Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunaren harira. Azaroaren 21ean, 18:00etan, Kultur Etxean.

MUSIKA

ERANDIO

► **Impromptu: Venezia, biolina eta Antonio Vivaldi, kontzertua.** Azaroaren 22an, 19:30ean. Josu Murueta Kultur Etxean, doan.



2009ko lehenengoa izango da UK aldizkariaren 150. alea

► **Euskal Kulturaren Jardunaldiak Getxon**

UK Proiektatzen, eskualdearen isla aldizkarian

Uribe Kostako aldaketen lekuko izan da UK aldizkaria azken hamarkadan. Herrien eta herritarren fisionomia aldatu da, egitasmo barriak sortu dituzte, eta zaharrei agur esan diete... UK bera ere aldatu da, eta ardo ona bezala, onera egin du. Herrietako barriak, erretiratuak, Akabuko Punte, argazkiak... ardo goxoaren tanta batzuk dastatzeko aukera izango dute abenduaren 4an Algortako Kasinora gerturatuko direnek, dagoeneko hitzordua jarri baitugu, 20:30ean. UKko irakurleak eta zaleak konpartitu gura dugu Uribe Kostako uzta, elkarregaz jostatu azken urteotako pasarteak, gure pertsona xelebreakaz, argazki ederrak... Zatoz, elkarregaz egin dezagun topa!

• **Non:** Algortako Kasinon • **Noiz:** Abenduaren 4an, 20:30ean.

► **Euskal Kantu Liriko Berriak.** Azaroaren 30ean, 19:30ean, Josu Murueta Kultur Etxean. Gonbidapenaz.

BERANGO

► **Dantza herrikoa.** Azaroaren 28an, 19:00etan, Nagusien Etxean.

LEIOA

► **Mafalda Arnauth (Portugal).** Azaroaren 28an, 21:00etan. 12 euro. Kultur Leioako Auditoriumen.

► **Julian Kanevski Trio (Argentina).** Azaroaren 21ean, 22:00etan. Ambigu Aretoan. 6 euro.

ANTZERKIA

BARRIKA

► **Akabo ipuin-kontaketa, bortxakeria eta botereari buruz.** Haurrentzat. Azaroaren 29an, 12:00etan, Udaletxean.

URDULIZ

► **Txotxongiok: Euskal Ipuinak.** Azaroaren 29an 18:00etan.

► **Potxin eta Patxin pailazoak.** Azaroaren 30ean, 18:00etan.

ERANDIO

► **Ohean.** Azaroaren 29an, 19:30ean, Josu Murueta Kultur Etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

► **Karabas. Golden Apple Quartet eta Kanpingags taldea.** Azaroaren 30ean, 18:30ean. Altzagako azoka zaharrean. Doan.

BERANGO

► **Ipuin kontalaria: ipuin mitologikoak.** Euskararen Astea dela eta. Azaroaren 1ean eta 2an, 17:30etik 19:30era, haur liburategian.

GORLIZ

► **Ipuin kontaketa erakusgelan.** Azaroaren 24an 19:00etan, eta 29an, 18:30ean.

PLENTZIA

► **Ipuin kontaketa haurrentzat.** Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna dela eta. Azaroaren 17an, 18:00etan Gofi Portalen.

BESTEAK

LEIOA

► **Kultura Topagunearen aurkezpena.** Azaroaren 21ean, 19:30ean, Nagusien Etxean.

BARRIKA

► **Hitzaldia: Biolentzia ez sexista.** Hizlaria: Maitena Monroe. Azaroaren 25ean, 19:00etan, Udaletxean.

BERANGO

► **Berango Gaua.** Genero biolentziaren gaineko tailerra. Azaroaren 21ean, Gaztelekun.

GETXO

► **Euskal Kulturaren Jardunaldiak.** Ekitaldiak azaroaren 21etik abenduaren lehenengo astera arte.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Landare esotiko inbaditzaileak errotik kentzeko saiakerak
Experimentación para la erradicación de las plantas exóticas invasoras

Panpako bedarra

Espezie inbaditzailea eta kolonizatzailea da Panpatik etorritako bedarra. Airez erraz asko bidaiatzen dute haziek, eta ingurune osora zabaltzen da. Azkar hasi, baina aldamenean ez die hazten uzten gainontzeko landareei. Hori dela eta, bedarra moztetari ekin dio Bizkaiko Aldundiak, Erandion esaterako, autobidearen ondoan. Argazkietan ikus daitekeenez, Panpako bedarraz josita daukagu eskualdea. Edertzeko zena, arrisku bihurtu ei da.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Arrantzalea

laino artean

Goizeko lanbroa gau bustiaren ostean, arrantzarako beti ei da eguraldi aproposa. Ibaizabal itsasadarrak ondo ematen du argazkietan, baina ilunabarraren koloreak izaten dituzte gustuko argazkilariek; orainoan, ordea, goizaldeko argiak sorgindu du argazkilaria. Arrantzalearen pazientzia orduan ere jokoan, bere bakardadean.

[berbetan]

Barazkirik onenak sortzen ditu Adela Andikoetxeak (Urduliz, 1954), ehunka sari eskuratu du azoketako txapelketetan. Kolorez betetzen du postua domekaz domeka, lan gogorraren ordainsari. Fabrikako lana soroagatik trukatu zuen 1981ean, aita hil eta amak bere lurak alaben artean banatu zituenean. Ortuari jardungo zuenik ez zuen sekula pentsatu, baina senarra etxerako landatzen hasi zen. Urtean 60 feria, astean zazpi egunean soroan, eta etxeko lana uztartu behar ditu emakumeak. Oporrik ez, tarterik ez, baina pozten da jendeak hitz politak eskaintzen dizkionean. Beste batzuen aldean zorionkoa da Adela, horren lanbide zailean.

Adela Andikoetxea

Soroaren azken belaunaldia?

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Ortuko erregina esaten dizute...

—Correoko kazetariak jarri zidan ezizen hori. Sopolakoa da, eta ezaguna dut.

—Sari asko jaso duzu, ezta?

—Bai, dagoeneko bostehundik gora dira, baina urte asko dira lanbide honetan.

—Plaza asko eta asko egiten duzu.

—Bai, 60tik gora urte osoan zehar. Denak ez dira txapelketak. Astebukaeran dira gehienak. Batzuetan, senarrak azoka batera eta nik beste batera joan behar izan dugu aldi berean.

—Sasoian sasoiako produktuak dauzkazu?

—Tomatea eta piperra ia urte osoan izaten dut, oso eguraldi txarra egiten ez badu behintzat. Hiru txandatan landatzen saiatzen naiz, Santo Tomasera ere izateko. Baina beste produktu batzuk sasoiako izaten ditut.

—Mota askotako berdurak landatzen dituzu, baita bitxiak ere, ezta?

—Denetarik landatzen dut, eta askotan barazki berberaren hainbat mota. Esaterako, koloretako azak dauzkat, bost motatako tomateak, pipermin mota...

Kanpotik haziak ekartzen dizkirate batzuetan, baina nekatuta nago horiekaz. Produktu batzuek lan handia ematen dute, baina gutxi saltzen dira. Beraz, horrelako barazki batzuk landatzeari utzi diot. Saldu, ohiko barazkiak saltzen ditut gehien, baina bestelako kolore eta formak dituztenek jendea erakartzen dute postura. Zerbait desberdina ikustean, hurbiltzen dira.

—Orain leku batetik bestera zabiltza, baina Portugalen eta Algortako San Lorentzon hasi zinen.

—Hasieran Portugaletara nindoan, den-detara eta jatetxetara saltzera. Aita hil

“Bestelako kolore eta formak dauzkaten barazkiek jendea erakartzen dute postura, horiek ikustean hurbiltzen dira”

zenez hasi nintzen. Amak alaben artean banatu zituen lurak. Nik orduan Sopolako fabrika batean egiten nuen behar. Leloa izan nintzen lan hura uzten. Lehenengo umea eduki, eta eszedentzia eskatu nuen. Beharrera bueltatu behar

nuenean, ordea, enpresa txarto zebilen, eta haurdun geratu nintzen barriro ere. Etxean geratzea erabaki nuen. Senarra hasi zen barazkiak landatzen. Negutegi txiki batez hasi ginen, etxerako bakarrik landatzen genuen. Ondoren, 40 metro koa-droko negutegi handi bat jarri genuen. Handia niri iruditzen zitzaidan orduan! Geroago beste negutegi bat gehitu genion. Horixe da hemen daukadana. Garai hartan Algortara joaten hasi nintzen, azoka gutxitara nindoan lehenengo bizpahiru urteetan. Baina gero batetik eta bestetik deika hasi zitzaizkidan, eta beste lursail bat

erosi genuen Urdulizen, bestela ez baike-neukan azoka guztietara eroateko generorik. Eta horrela, badira 21 edo 22 urte Algortako San Lorentzora noala, 18 Bilboko Santo Tomasera eta urtebete gutxiago Gernikara.



—**Dedikazio handia eskatuko du.**

—Bai, egun osoa egiten dut hemen, azokatarara edo medikuarengana joateko bakarrik ateratzen naiz. Azkenaldian alabak egiten ditu mandatuak, eta ia-ia ez naiz etxetik irteten. Egunero dago lana. Ekainetik abendura arte daude feriak, Santo Tomasera arte. Ondoren badaude azoka batzuk, baina gutxiago. Orduan ez dut horrenbeste lanik, baina beti dago zerbait. Gainera, egunak laburragoak dira, hazitokiak jarri behar dira, zikloa berriro hasteko. Beraz, jarraia da lana. Baina ekainetik abendura, egun osoa lanean, batzuetan argia dago gaueko hamarrak arte, eta ordura arte egoten naiz ortuan.

—**Laguntzaileak izango dituzu.**

—Bai, noski! Nik bakarrik ezin dut dena egin. Barazkiak prestatu eta banatu nik egiten dut, eta Urdulizen dugun lurraz ni arduratzen naiz, sulfatatu eta traktorea pasatu izan ezik. Izan ere, traktorea gidatzen ikasiko banu, neuk egin beharko nuke behar hori ere... Fikako lurretaz, berriz, senarra arduratzen da. Orain urte bi erosi genituen.

—**Urdulizko ortua txiki geratu zaizue?**

—Fikako lursaila erosi genuen, esan zigutela Urdulizen industria-pabilioiak egin behar zituztela. Egia esan, gogo handirik ez neukan erosteko, eta zerbait eskainiz gero, gutzia kendu genezakeela pentsatu nuen. Baina senarrak baietz. Duela bost urte esan ziguten. Oraindik, ordea, ez dakigu ezer, eta badirudi nahiko geldi dagoela kontua.

—**Asko aldatu da ingurua? Eragiten al dizue?**

—Inguru hau bai, lehen jende askok lantzen zituen ortuak, baina orain, ikus dezakezunez, zelaiak dira guztiak. Eta gutxi barru eraikinez beteta egongo da. Izan ere, eraikitzen dabiltzana amaitu ostean, hemen hasiko direla zioten udalean.

—**Bizitzeko ematen du?**

—Nire senarrak beste lana zeukan, orain erretiratuta dago, baina besteagaz jarraitu behar zuen lehen. Bada, jateko, orain muntatu dugunagaz, uztaren arabera. Jendeak

uste du produktuak oso garesti saltzen ditugula, baina ordaindu behar dugun guztia zenbatzen hasiz gero, elkarrekin parte hartzeagatik ordaindu behar duguna, haziak, tratamenduak; haizeak negutegia ondatuz gero konpondu beharra, lau urtean behin plastikoa aldatu beharra (6.000 euro gutxienez)... Gastu handia. Dena dela, Eroskin prezio altuagoan topatu ditut nik

“Senarra hasi zen barazkiak landatzen, negutegi txiki bategaz hasi ginen, etxerako bakarrik landatzen genuen”

saltzen ditudan produktu berak. Pentsatzen dut orduan ez dudala horren garesti saltzen. Barazkia jasotzen duzunerako, gastu handia dago eta beti ez duzu jasotzen; eguraldi txarra eginez gero, ezebez. Eta ez ditugu kontatzen sartzen ditugun ordu guztiak.

—**Asko eta asko?**

—Jaiki eta gosalduta ondoren, etxean zerbait egin, eta ortura noa. Etxean beste norbait ez badago, bazkaria prestatzera nator, baina norbaitek egiten badu, bazkalduta arte egoten naiz ortuan. Behin bazkalduta eta jaso ondoren, buelta ortura, ilundu arte. Garaiaren arabera gaueko hamarrak arte izan daiteke.

—**Beraz, sari asko jaso eta Bizkaiko nekazaririk ezagunenetakoa izan arren, behar handia, baina diru gutxi?**

—Enpresa batean hemen lan egiten ditu-

“Eroskin prezio altuagoan topatu ditut nik saltzen ditudan produktu berak, nirea ez dela hain garestia pentsatzen dut orduan”

dan ordu guztiak sartuz gero, askoz hobeto biziko nintzateke. Oporrak izango nituzke. Beno, batzuek esaten dute honetan ere oporrak har nitzakeela, baina ezinezkoa da. Nork egingo dit beharra bestela? Pertsona bati ordaindu beharko nioke, eta beraz, ez du merezi. Behar handia da, sakrifizio handia eskatzen du. Gero, etxera iritsi eta ber-

tako lanak ere egin behar, eta askotan, denborarik ez du ematen guztia egiteko. Iganderik ez daukazu libre... Guztia bertan behera uzteko gogoia ematen dit batzuetan. —**Asteburu honetan ere azoka bi izan dituzu.**

—Bai, zapatuan Turtziozera joan ginen; batu eta han geratu ginen bazkaltzen lagun batzuek. Arrastian etxera, eta biharamu-

nean Zamudiora eroatekoa prestatu eta antolatu. Hurrengo goizean Zamudiora. Hiru ordu ematen ditut postua antolatzen. Euria zen, bueltan dena nahastuta ekarri genuen. Beraz, etxera iritsi eta ordenatzen hasi, dena sikatu... Oraindik badaukat beharra, ez dut amaitu. Soberakinetatik, gainera, asko bota behar izaten dugu, galtzen baitira.

—**Zure moduan ibiliko dira beste nekazariak ere, asko zarete oraindik lanbide honetan?**

—Nik uste gero eta gutxiago garelana lanbide honetan. Azoketara interesak naroa, osterantzean behar hau utziko nuke. Handizkako salmenta ez zait interesatzen, ez nuke nahikoa aterako dauzkadan gastu guztiak asetzeko. Handizka apur bat saltzen dut, eta bestea azoketan. Azken horietan

ohiko bezeroak dauzkat. Eta horrela moldatzen naiz.

—**Handizkakoan dirua bitartekariak irabazten dutela salatu dute nekazariak askotan, azkenaldian are gehiago: zuek haziak lehen baino garestiago erosi, baina gero lehengo prezio bera ordaintzen dizuetela, zuri ere eragiten dizu?**

—Horregeatik noa azoketara. Bezeroari saltzen diot zuzenean, bitartekariak barik. Baina Portugaleteko dendetara eta jatetxetara ezin dut eroan, gaur egun ezin dudalako asko saldu. Lehen bai, erosten nuen guztia saltzen nuen, baina orain ez. Mercabilbaora eroanda, han seguru saltzen dudalako. Kontua da merkeago saldu behar izaten dudala, niri erosten didanak dendei saltzen dielako, eta bai berak, bai dendek, biek etekina atera behar dutelako. Beraz, nik diru gutxiago jasotzen dut. Eurek jartzen didate prezioa. Azokan ez, han nik jartzen dut eta saltzen dut, horregeatik ere ditut gustuko. Etxera gutxi batzuk ere badatoz.

—**Etorkizunari begira jarrita, nola sumatzen duzu?**

—Ez dut uste urte askoz gehiago jarraituko dudarik. Ez naiz ibiliko lanean bizitza

osoan. Eta sektorea, orokorrean, gutxira doa. Gazte batzuk hasi dira lanean, baina ekologikoak dira gehienak, eta kantitate gutxiago daramate azoketara, ikusten dudanagatik. Beraz, ez dakit horretaz bizi ahal izango diren. Orokorrean, Sopelan eta Urdulizen negutegi gutxi zegoen, eta orain ezer ez, dena eraikinez beteko dute. Lotzen diren apurrak negutegiak dira,

“Sektorea gutxiagora doa, negutegi gutxi geratzen da eta orturik ez; dena eraikinez beteko dute gainera”

orturik ez da ikusten.

—**Erreleborik ez duzue izango zuenean?**

—Ez nuke gura seme-alabak honetan behar egiterik, oso gogorra da eta. Ikasi duten arloan lanik topatu ezean, hemen

izango dituzte lurak. Ezin ahaz daiteke, neuk ere ez nuela uste nekazari amaituko nuenik, ez nuelako gustuko; baina begira! Orain gehiago gustatzen zait, azokei esker jende asko ezagutu dut eta guztiok dugu gustuko postua zer polita daukagun entzutea. Saltzea gustuko dut, hori baino ez balitz, pozik nengoke; baina behar handia dago atzean. Alde batetik pozik nago, poz-

tekoa delako lan ona aitortzea, eta komunikabideek horrenbeste arreta eskaintzea. Ezin kexa naiteke alde horretatik, beraien arreta eskertu beharra daukat, horri esker jende askok ezagutzen nau eta. ○



aldizkaria **etxean** jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
 Kalea & zenb.....Herria.....
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
 Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Gebxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37




Umeen kontura

Algortan jaio zen Naiara Goikoetxea orain 25 urte. Artezalea izaki, duela hiru urte hasi zen argazkiak egiten, Arte Ederretako karrera amaitu eta kamara erositakoan. Irailean erakutsi zituen bere argazkiak Gorlizen. Udaberrirako beste erakusketa bat prestatzen dabil, Donostian oraingoan. Umeen argazki sorta ekarri du UKko orriotara, irakurle guztien gozagarri. Beraz, umeen kontura dator ale honetako Fotografia. Argazkia zeri eta nori atera baino, zergatik egiten duen galdetu beharko genioke, ordea, *“artea maite”* duelako egiten ditu eta.

Argazkiak: **Naiara Goikoetxea**









I

Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 94 430 23 45
Telletxe 1 T: 94 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrri 10
T: 94 491 08 21
ALGORTA

HARTU TXANDA

GAURKO

GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 94
4 6 0 7 0 8 4

[zinema]

Urrezko ezteiak

Zinebi jaialdia **hilaren 29an amaituko da;**
ondino **badago non gozatu**



lazko laburmetrai irabazlearen irudia: "Le printemps de Sant Ponç"

Zine Dokumental eta Film Laburren Nazioarteko Bilboko Zinemaldia, 2000 geroztik Zinebi izenagaz ezaguna dena, 50. urteurrenko ospakizunetan dabil burubelbarri eta begi. Zinemaldiaren egitarau nagusia hilaren 21etik 29ra izango dela azaldu dute antolatzaileek, ostera aurtengo egitarau osoa biltzen duen *Etorri eta begina-Vén y mira* programak iragan urriaren 11n ekin zien ekimenei. Orduetik eta gaur arteko bitartean hainbat ziklo, hitzaldi, topaketa, atzera begirakoak etab. Besteak beste: *Zinema emakumeak* (andrazkoek zuzendutako film labur eta dokumentalen emanaldia); *Zine Eskolen topaketa*; *Talka egin, Talking!* (Gerra Hotzaren garaiko zine politikoaren jardunaldiak); *Gidoiaren astea*; *Zinez bizi* (Zinebin egondako euskal zine zuzendarien lanen emanaldia); *Zinebin saritutako emakumeak* (filmeen erakustaldia); *Bakarrizketak* etab.

Ekitaldi gehienak Zinebigunean egingo dira, 1959ko Zinebiren lehenengo ekitaldia egin zen leku berean, Kale Nagusiko Gran Via zinema ohia zegoen lekuan, gaur egun BBKrena den aretoan. Aipaturakoa-kaz gozatzeko aukera galdu baduzue, ondi-

no ere baduzue datozen ekitaldiak gozamen hartzeko aukera. Esaterako: *Lo breve si breve. Cuentos sobre películas cortas* liburuaren aurkezpena (Zinebigunea; hilak 19, 20:00); *Zinebi Express* lehiaketa, (48 ordu-tan Bilbon filmatutako laburrak; 20:00, hilak 21); *Transnoche Zinegoak* (filmen emanaldia, ostean Yogurinha Borova eta Las Felliniren ikuskizuna; hilak 22, 20:00); The No Smoking Orchestra banda lagun, Emir Kusturika serbiar zinegilearen kontzertua (Arriaga antzokia, hilak 23, 19:00); *Bilbol Kanpoan/Eguna* (zinemaldiaren historiari buruzko liburuaren idazle Alberto Lopez Echevarrietak Bilbon filmatutako

«Emir Kusturika serbiar zinegilearen musika emanaldia hilaren 23an»

hainbat filmaren aukeraketa; hilak 25-28, 20:00), horien ostean kontzertuak (hilak 25), scratch jaia (hilak 26), Borja Cobeaga gaua (hilak 27) eta DJ emanaldiak egongo dira (Andy Smith; hilak 28). Getxon ere Zinebiko hainbat film egongo da ikusgai (Villamonte, hilak 24-25, 19:30). ○

Informazio gehiago: www.zinebi.com

Antologia baino gehiago

Itoizen kantu aukeratuaren bilduma, elkarrizketak eta antzinako irudiak batzen ditu CD-DVDak



Informazio gehiago: www.itoiz.org

Euskal pop-rockaren talde aitzindarienetakoaren kantu-irudi-elkarrizketa aukeratuaren bilduma, *Itoiz. Antologia (1978-1988)*, plazaratu du Elkarrek. Aurten beteko dira 30 urte Itoizek lehenengo diskoa plazaratu zuenetik... baina oraindik ere "*Lau teilatu*"-k eta beste abesti batzuek, gaur egungo taberna eta gazte, zein ez hain gazteren ahots kordak berotzen jarraitzen du. Antologia osatzen duen CDan Mutriku-Ondarroako taldearen 18 kantu arrakastatsu batu dituzte, ostera, DVDA jatorrizko taldekideei (Juan Carlos Perez, Jose Garate

Fois eta Antton Fernandez) egindako elkarrizketek, eta taldearen historiaren gaineko dokumentalak osatzen dute. Ia ordubete irauten duen dokumentalaren hasieran jatorrizko laugarren taldekidea, joan den urtean hil zen Estanis Osinalde akorduan daukate, ostean, zuzeneko emanaldien zatiak, hainbat bideoklip ("Safari", "Hegal egiten", "To Alice") eta telebistako agerraldietako irudiak sartu dituzte. Erromantikoentzat, zein gaur egungo musika zaleentzat begirako lana da

Bestalde, Itoizko kideek argi eta garbi azaldu dutenez, ez dira barriro batuko zuzenekoak emateko. ○

diskoa >

Juan Carlos Irizar



Euskal abesti emblematicoak diskoa prestatu eta plazaratu du Juan Carlos Irizar msikagile oñatiarrak, "gaurko umeek eta gazteek kantatzeko ohitura berreskura

dezaten, eta gehiago kanta dezaten". Bertan 26 euskal kantu entzutetsu batu ditu besteak beste: Xalbadorren Heriotzean, Haurtxo polita, Maite nauzula diozu, Loretxoa eta Eusko Gudariak. Abeslari legez Xabier Euzkitzek, Belen Madariagak, Asier Muniategik, Jose Antonio Villarrek, Marian Larreak eta Galdaoko Ganbara abesbatzak jardun dute. Diskoagaz batera liburuxka ere atondu du Irizarrek, eta hortxe 38 abestiren partiturak batu ditu, pianoz, gitarraz, txirulaz eta soinuaz jotzeko. Bestalde, disko honen moduko beste hainbat egiteko materiala oraindik ere badagoela adierazi du oñatiarrak.

AC/DC > BECen

Orain dela gutxi jakinarazi dute Bizkaiko Aldundiak, Bilboko Udalak eta BBKK Australiako talde arrakastatsua kontzertua eskainiko duela BECen. Barakaldoko BECeko Bizkaia Arena aretoan joko du AC/DC taldeak hurrengo urteko apirilaren 4an; euren azken lanaren, *Black Ice*, aurkezpen biraren barruko emanaldia izango da. Dena dela, oraindik ez dute jakinarazi kontzerturako sarrerak noiz ipiniko dituzten salgai; horrenbestez, zaletuek adi egoteko beharra daukate.

diskoak

Infer
Belceblues
Gaztelupeko Hotsak



Asier Elorzak (baxua eta ahotsa), Ibon Larrañagak (gitarra) eta Oihan Vegak (bateria) osatzen dute 2005ean sortutako Bergarako taldea. Rock, country eta jazz estiloko hainbat taldean ibiltakoak dira, eta eragin horiekaz barrurago egin dute oraingoan, sustraietara itzultzea erabaki dute, bluesera.

Y si rompo mi camino
Damba
K Industria



Astigarraga-Donostiako taldearen estreinako lana erritmo etnikoetan murgiltzen da begirada propio bategaz; blues, punk, son, reggae, funk, rock eta elektronika doinuak uztartuz. Diskoa 9 herrialdeetatik (Ingalaterra, Mexiko, Kuba, Nikaragua, Frantzia, EH, Katalunia etab.) egindako bidaian osatuz joan dira.

Inorena ez den lurrean
OST
Baga-Biga



Bermeko taldearen laugarren diskoa da *Inorena ez den lurrean*. Ohiko metal doinuei fidel zaizkie OSTekoak lan barri honetan ere, disketxetik adierazi duten legez, "diskoa metalaren sakonketa hutsa da". 10 urte baino gehiagoko ibilbidea duen taldea Kapi (gitarra-ahotsa) Joni (bateria), Joni "5" (baxua) eta Ikerrek (gitarra) osatzen dute.

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure eskarian

Getxo eta Berango artean
Tel: 94 430 15 00

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

GORLIZ IRRATIA
Urbe Kostako Irratia 107.8 FM
www.gorlizirratia.com

[liburuak]

Feminismoaren iturri

Simone de Beauvoirren biografia plazaratu du **Arantxa Agirreurretak** Elkarregaz

Frantses filosofo-idazlearen jaiotzaren mendeurrena bete den honetan, hamaika ekitaldi egin da bere oroimez, horien artean sar liteke Arantxa Agirreurreta kazetariak (Urretxu, 1968) plazaratu barri duen biografia: *Simone de Beauvoir. Emakume libre bat XX. mendean* (Elkar). Agirreurretaren esanetan, "haren lana ezagutarazi, gogoratzeko eta aldarrikatzeko" asmoz idatzi du liburua, "feminismoaren eta existentzialismoaren inguruan mugitzen zen norbait baino gehiago dela adierazi nahi izateko". Urretxuarrak dioenez, "bidaiaria, familia eredu baten sortzailea, pertsona askea, filosofoa, bere bizitza libre bizitzera ausartu zen emakume baten bizitza da eta beste hainbat

«**Deuxième Sexe** lanean bildu zuen De Beauvoirrek emakumearen "esentzia"»

gauza ere izan da". Mariasun Landa idazleak egin dio biografari hitzaurrea, eta bertan De Beauvoirrengandik edandakoa laburbildu du: "Independentsia ekonomikoa, ogibideren bat izatea, bete beharreko lehen baldintza zela emakume aske batentzat, eta baita ezagutzaren egarri agortezina, bidaiak eta mundua ezagutzeko grina, eta maitasun aske eta anitzaren ametsa ere". Emakumearen gaineko ideioak eta beste hainbeste, gerora feminis-



Simone de Beauvoir (Paris, 1908-1986)

moak begibistatik galdu ez duen *Le Deuxième Sexe* (Bigarren sexua, 1949) saiakera-liburuan batu zituen paristarrak. Jean Paul Sartre bikoteak proposatu ei zion De Beauvoirri emakume izateak berarengan zuen eragina aztertzea, "familia oso tradizional batean sortu eta 21 urte-gaz Frantziako filosofia inakasle gazteenetakoa izandakoa, beti gizonezkoen munduan mugitu zen, intelektuaren eta filosofoen artean, eta ez zion aparteko baliorik ematen emakume izanagatik hor egoteari", azaldu du biografiaren idazleak. Baina ikertzen hasi, eta harritu zuen zerbait aurkitu zuen, *Deuxième Sexe*-n batu zuena. "Lanak galdena soil eta oinarritzeko bati erantzuten dio: zer den emakume izatea", dio Agirreurretak. Dena dela, De Beauvoirren euskaratutako lan bakarra *Besteen odola* da (Ibaizabal). ○

liburuak



El Sur en revolución...
Luismi Uhart
Txalaparta

Venezuelako Unibertsitate Zentraleko Soziologia Eskolako irakasle da egun *El Sur en revolución. Una mirada a la Venezuela Bolivariana* liburuaren egile nafarra. Askapenakideak 10 urte daramatza Latinoamerikan bizitzen, lanean Bolívar iraultzaren prozesua du aztergai.



Filosofia historia
Hainbaten artean
Elkar

EHUko irakasle Javier Agirrek, Agustín Arrietak, Jose Ignacio Galparsorok, Fernando Migurak eta Ibon Uribarririk prestatu dute helburu didaktiko, akademiko eta kontsulta izan gura duen liburua. Platon, Aristoteles, A. Hiponakoa, T. Akinokoa, Kant etab.

[kirola]

Laugarrenaren zain

Punta Galea Challenge surf txapelketa itsasoari eta eguraldiari begira



Orain dela bi urteko txapelketan ateratako irudia

Getxon, Punta Galeako itsaslabarraren oinetan sortzen diren olatu erraldoietan egiten den Punta Galea Challenge surf txapelketak laugarren ekitaldia abiatu du. Joan den urtean bertan behera utzi behar izan zuten azkenean, txapelketa berezia, egin ahal izateko beharrezkoak ziren olatu eta eguraldi baldintzarik ez zegoelako. Halere, Euskal Surf Federazioak eta 3sesenta aldizkariak ez dute etsi, aurten ere txapelketa antolatzeko ahalegina egingo baitute. Iragan azaroaren 1ean zabaldu zuten txapelketa burutzeko epea, eta hurrengo urteko apirila bitarteko tartean egingo da, baldintza egokiak badira.

Punta Galea Big Challenge egin ahal izateko baldintza nagusiak ondorengoak dira: marea goian, hegoekialdeko haizea eta 4 metrotik gorako olatuak. Hala, klimatologiaren, antolatzaileen, probaren zuzendariaren, ozeanografo baten eta surfarien oniritziak bat datozen egunean egingo da txapelketa, hori bai, beti ere 2009ko apirilaren 1a baino lehen. Antolatzaileek txapelketaren egun zehatza 24-48 orduko aurrerapenagaz iragarriko dute

bakoitzaren web gunearen bitartez.

Surflariei dagokienez, Punta Galeako olatu erraldoien txapelketako partehartzea gonbidapen bidezkoa da, eta dagoeneko olatu handietako Kantauriko 18 surfleri adituk jaso dute antolatzaileen gonbita, hurrengoek hain zuzen: David Bustamante, Aritza Saratxaga, Peio Etxebarria, Guillermo Barandiaran, Asier Muniain, Manu Portet, Iker, Eneko eta Kepa

«Txapelketa noiz ospatuko den antolatzaileen web gunetan jakinaraziko da»

Acero, Jaime Fernandez, Asier Legarreta, Lucas Levezak, Iker Fuentes, Pablo Solar, Jon Garai, Dani Diez, Aritz Aranburu eta Txabier Trojaola.

Txapelketak 4 orduko iraupena izango du, bitan bana daitekeena. Txapelketa gauzatzea lortzen badute 8.000 euro banatuko dituzte sarietan. Horrenbestez, surf zaletu bazara adi itsasoari, eguraldiari eta antolatzaileen sareko atariei. ○

Egoeraren jarraipena: www.euskalsurf.com
edota www.3sesenta.tv

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA
SERVITEC

Lacofris S.L.



94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Koska Irratiko lagunak > denboraldi barria

“Barrikuntzak egin ditugu, tresna moduan indar handia izan dezake Koskak”



Koskako lantaldea, irratian

Barrituta dator Koska irrati librea. Asteotan ekin diote denboraldi barriari, betiko programazioari hobekuntzak egin, eta zenbait saio abiatu dituzte. Zortzi urteko ibilbidearen ostean, gogoeta sakona egin dute. Hilabete batzuetako etenaldia eta, helduago, baina betiko ilusioagaz egingo diote aurre aro barriari. Kalitatea eskaini, jende gehiagorengana heldu eta entzuleen parte hartzea bultzatu gura dute.

—Hilabete batzuk eman ditugu Koska entzun barik, baina barriztuta ei zatozte.

—Irratiko tresneria guztia aldatu dugu, horregatik egon da geldiuena, bide batez, denboraldi barria prestatu dugu; barrikuntza batzuk sartzen gabiltza aurten. Pentsatu genuen aldaketak egitea, Koskak indar handia izan dezakeelako: eskualdean euskarazko hedabide gutxi dago, eta tresna moduan indar handia izan dezake. Azken urteotan ez da esplotatu, lauzpabost saio egitera, eta musika inolako ordena barik jartzera mugatu da. Garai barriari ekiteko publizitate kanpaina abiatuko dugu, baita jende barriaren-

gana heltzeko ere. Azkenaldian entzulego murriztari zuzendu zaio Koska; gazteei batik bat, eta gainontzeko pertsoneri zabaldu gura diogu irrati. Publizitatea ere ildo horretan planteatu dugu: Kultur Etxeetan eta eskoletan ere jarriko dugu propaganda. Eskualdean euskarazko irrati badagoela esango diegu, eskualde osorako gainera; orain arte Getxora mugatu da gehienbat.

—Zeintzuk dira aldaketak?

—Ez dira ikaragarriko aldaketak. Kalitatea eskaini gura dugu, hizkuntza gehiago zainduko dugu. Gehienbat goizeko magazinari indartu gura izan dugu. Orain arte bezala,

Info7 irrati magazine emango dugu, eta horren ostean, 12:00etan Ukberri magazine egiten gabiltza; Ukberri web guneagaz elkarlanean egiten dugu, baina Koskak ekoizten du. Euskal Herriko informazioa Info7tik helduko zaigu, eta Koskak landuko du Uribe Kostakoa. Aldaketa zergatik? Orain kolaboratzaileak ekarri ditugulako gai barriak lantzeko. Eskualdeko kirol taldeei buruz, osasunari buruz, euskarari buruz edo zineari buruz arituko dira, egunaren arabera. Uribe Kostako agenda ere eskainiko dute. Jendearen parte-hartzea eskertuko genuke, informazioa helaraztea, zuzenean telefonoz

«Herriarentzako sortutako irrati da, herritarrek parte hartzea gura dugu»

parte hartzea, horretarako telefonoa zabaldu dugu eta. Arratsaldean, barriz, saio barriak, eta inoiz landu ez ditugun gaiak ekarri ditugu, betiko programak ahaztu barik. Historiari buruzko saio bat abiatu dugu, musikari buruzko beste bat; errepresioari buruzkoari, gai barriak gehitu dizkiogu... Saio landuagoak egiten saiatu gara. Asteburuetan saio gutxiago egongo da, baina batzuk bai. Musika jartzen dugunean, era ordenatuan egiten saiatzen ari gara, eta umeentzako tartea ere egingo dugu.

—Betiko filosofiagaz jarraituko duzue?

—Bai, herriarentzako sortutako irrati da, herritarrek parte hartzea gura dugu, zabalik gaude gura duenak saio edo tarteren bat egiteko, parte hartze mota asko dago, eta horixe indartu gura dugu. Web gunea ere barritu dugu, goitik behera, itxura aldetik diseinua aldatu dugu, landuko diren gaiak eta modua desberdinak izango dira. Iaz hasitako bidetik, bideoak esekiko ditugu, guk ekoiztitakoak, zein kanpotik ekarritakoak. ○

UDA GOIENEN
OSTERA
2008 9.edizioa

Hor al zaude?
LEIOA KULTUR LEIOAKO AUDITORIUMA
Abenduak 5, barikua, 20:00etan. Sarrera: 6€

(SARREREN SALMENTA: Baitan eta BKren oinarriko klubazaleetan)

halan bada
gurera deitu
eta sarreraren jabe
izango zara

Jasotako deien artean
lagun 2rentzako 2na sarrera
zozketatuko dugu.

Deitu
94 491 13 37
telefonora
azaroaren 21
baino lehen

uk

euskaraz
pauso bat harago **13!**
 Kontseiluaren 10. urteurrena * abenduak 13 * BEC * 18:00

laguntzailea
uk

Haurtzaindegi-zerbitzua izango da
 Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzea:
 nierebanoa.com webgunean
 902 82 02 40 telefonon

10
 urte
 KONTSEILUA

UK taberna

Algortako giroa berpiztu guran



Mou eta Piña UK tabernan

Algortako bihotzean dago azken urteotan inguruko gazte askoren topaleku bihurtu den UK taberna; "modako lokala" dela esaten dute batzuk. 2006ko maiatzean, Oihan Morages *Mou* eta Mikel Piñero *Piña* bikoteak hartu zuen UKren ardura. Etxean bezala sentitzen dira, bai tabernariak baita hurbiltzen direnak ere: "Jende ezaguna hurbiltzen da, herrikoa; erraza da horiekaz behar egitea". Neguko arrasti hotzetan, zein asteburuetan, giro ederra sortzen da: "Gosaltzeko leku aproposa ere bada".

Ohitura zaharrekin jarraitzeko, eguenetako giroa berreskuratu gura dute: "Eguen sozialak oso bereziak izan ohi dira". Horretarako, jendea erakartzeko ekitaldiak antolatzen dituzte. Orain arte, Moby Dick bakarlariaren kontzertu akustikoak anima-

tu ditu eguenetako gauak; baina, beste egitasmo batzuk dituzte esku artean: "laburmetraia emanaldiak egingo ditugu". Lantzean behin, jai tematikoak asmatzen dituzte: "Urrian Jontxu Kojoi ospatu genuen. Hil honetan, koktel dastaketa egingo dugu: kaipiriña, mojito, bloody mary...". Algortako asteburuetakoko parranda giroa berpizten saiatzen dira UKn, baina ez da batere erraza: "Taberna gutxi dago. Ixteko ordutegi malguagoak behar ditugu, gazteak kotxea hartu, eta beste herri batera joan ez daitezten. Horrela jarnaituz gero, errepideetan amaituko dugu Algortako gazteok". Talde "maketeroen" diskak dituzte salgai. Eta Athleticen partidua ikus daitezke, noski! o

Maria Andresena 1, ALGORTA
 Tel.: 94 602 29 24

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
 Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10 ALGORTA
 T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



ARTAZA ETXEA

jatetxea

- gosariak
- txuletoia • makailua
- arrain freskoak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
 Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
 48993 ANDRA MARI -
 GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN

"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa!"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g,
Algorta

*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA</p> <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Arazoren bat daukazunean zergatik ez duzu laguntza bilatzen? Lagunak hor daude behar dituzunerako. Beraigana jo beharrean etxe zuloan sartu, eta negarrez ematen duzu eguna.</p>	<p>OTSOA</p> <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Komunikazioa ezinbestekoa da bikote harremanetan. Zuk, ordea, ez diozu garrantzi handirik eman azken asteotan; horregatik, gertatu beharrekoak gertatu dira. Dena den, ez larritu; oraindik gauzak konpontzeko aukera daukazu.</p>	<p>ADARRA</p> <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Espero ez zenituen gastuak izan dituzu, eta orain gurasoei dirua eskatu beharrean zaude. Hasieran haserretu egingo dira seguruenik; baina, eskatutakoa emango dizute. Azken finean, beraiek ere gazteak izan ziren.</p>
<p>AITZURRA</p> <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Azkenaldian irribarra aurpegiak kendu ezinik zabilta. Zein da sekretua? Albiste txarrak direnean erraz kontatzen dituzu. Zergatik gorde zuretzako onak? Maitasun kontuak ote?</p>	<p>HOSTOA</p> <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Zertarako joan medikuarenera bere gomendioei jaramonik egingo ez badiezu? Ohitura osasuntsuak jarraitzeak ez du esan nahi gimnasia egunero joan behar zarenik, baina noizbehinka osteratxoa egitea ez legoke gaizki.</p>	<p>EGUZKIA</p> <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zure buruari gehiegi eskatzen diozu. Horrela jarraituz gero, ez duzu urtea amaitzeko indarririk izango. Deskantsua merezi duzu. Sofan eseri, eta pentsatzea eskatuko ez dizun pelikula ikusi, edo aldizkari bat irakurri.</p>
<p>GARIA</p> <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Zure lankideek arrazoiak daukate. Laster sorpresatxo bat izango duzu; asko poztozko zaituen ezustekoa. Baina lasai egon ondino, gauza bakoitza bere momentuan. Denbora luzez itxaroten dena gehiago eskertzen da.</p>	<p>LASTOA</p> <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Faltan botatzen duzun pertsona hori laster bueltatuko da, baina ez da herrian luzaroan geratuko. Bera barik bizitzeko ikasi behar duzu, etxetik joandakoan gurasorik barik bizitzen ikasi zenuen bezala.</p>	<p>IRATZEA</p> <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Urrutiko intxaurrak hamalau bertara gerturatu eta lau. Beti gertatzen zaizu berdina, eta sekula ez duzu ikasten. Zure errealitatearen arabera bizitzea ondo dago, baina beste errealitate batzuk ere badirela onartu behar duzu.</p>
<p>META</p> <p>(Irailak 17 urriak 16) Espero ez zenituen gertaera batzuek, okerreko bidea hartzera erango zaituzte. Kontuz esaten duzunagaz; egiten duzunagaz ere bai. Argi ibili eta burua erabili.</p>	<p>HAZIA</p> <p>(Urriak 17 azaroak 15) Gauzen alde ona ikusteko gaitasun ikaragarria daukazu. Ez pentsa hori tontakeria denik, ezta gutxiago ere. Askok ordainduko lukete zu bezalakoa izatearren.</p>	<p>NEGUA</p> <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Asteburuetan parrandaz parranda zabilta, eta gero astelehenetan indar barik. Zuk ikusi zer egiten duzun, baina ez errua bota lankideei, metroari, trafikoari edo telefonoari. Izan kontsekuente.</p>

badator koska berria!

KOSKA
irratia 108 FM

Uribe Kostak behar duen informazioa

www.koskairratia.com



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Txori buru beltz. 2. Une honetan. Toka, zuen. 3. Ipar Euskal Herrian, udazken. 4. Koipe. Kasik. Istu, txistu. 5. Sodioaren ikurra. Belardiak, aziendaren bazkalekuak. 6. Hedabide mota. Atzizkia. 7. Abeckerako azken letra. Areago. Egoskin mota. Kontsonantea. 8. Aluminioaren ikurra. Sua piztu. 9. Neurria. Alkoholen amaiera. 10. ...dakarrera, ... daroa. Arabako herria, Errioxan.

Goitik behera

1. Lurralde bat kolonia bihurtuz jabetu. 2. Euskal Herriko mendialdea. Bizkaieraz, gehiegi. 3. Soldata. Egiptoko jainkoa. Masurioaren ikurra. 4. Atletak. 5. Emakume izena. Euririk ez. 6. Kontsonantea. Ezten. Emakume izena. 7. Etxe sarreretakoko gela zabalak. 8. Balu, eta haiei ba... . Bokala. Bokal bikoitza. Zero. 9. Xortak. Atzizkia. 10. Zinkaren ikurra. Esku itxia.

Soluzioak

V	R	O	K	E	K	V	R	U		
L	O	V	A	N	I	A	M	A	T	
I	K	E	Z	I	R	A	V	L	A	
B	E	T	E	R	E	V	Z			
A	K	V	I	A	T	R	R	I		
K	A	R	E	H	L	A	R	E	A	N
U	T	I	A	I	O	L	I	O		
N	N	K	E	Z	A	R	R	A	Z	
N	A	I	N	Z	I	A	O	R	A	I
Z	E	L	T	Z						

asmatu eta irabazi > **lagun birentzako bazkaria**



Nor da?

- Katamalogaz emon barri du azken kontzertua
- Nafarra da
- Berri txarrak eroan ei ditu jaietara

> Aurrekoaren erantzuna: Edurne Pasaban
> Irabazlea: **Lorea Martinez de Goñi**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi
kafetegia



Usategi parkea zlg, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



GORLIZ LIBURUTIK ATERTAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Gornizko Andra Mari Futbol Taldea, 1932

Andra Mari, Gornizko auzo eta baseliza baten izena dugu. Baseliza honen historia XI. mendean hasten da. Seguraski horregatik izen hori ipiniko zioten taldeari jokalarari hauek (gorniztarrak guztiak), nahiz eta gehienek auzo horretakoak ez izan.

Argazkia, futbol partidak jokatzen ziren Plentziako "relleno"an (etxeak eraiki dira bertan) aterata dago; atzealdean, zuhaitzak ikusten diren tokitik, gaur egungo Gorniz-Plentzia bidea doa. Egoitza edo Paulina taberna/dendan zegoen. Ekipo amateurra zen, tabernek eta herriek/auzoek (Algortaraino) antolatutako txapelketetan parte hartzen zuen.

Datu bitxia."Relleno"an ez zegoenez ezer, ez arropak aldatzeko, ez ezertarako, Plentziako Pauli tabernan jantzen ziren: elastiko zuria, praka beltzak eta abarketak kedartsuarekin(abarketan gainean jartzen ziren zinta zuria). Horrela jantzita bost minutu edo oinez eta... jokatzerara. Euria egiten zuenean zer-nolako pisua hartuko zuten abarkekek...! Hauek bai hauek!

Zutunik: Villaverde, Carmelo Sustacha, Jesus Gorordo, Juanjo Ruiz, Tomas Sevillano, Jose Luis Oñate, Ramon Oñate, Nicolas Garaizar

Makurturik: Gabino Izagirre, Jose Lasa(atezaina), Manolo Sustacha



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

MATXALEN DE PEDRO > Aktorea

“Idazle eta pertsona bezala miresten dut Simon de Beauvoir”

Testua: **Maitane Nerekan** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Langilea eta sutsua.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Simon de Beauvoir. Emakume indartsua izan zen, eta feminismoari bultzada garrantzitsua eman zion. Idazlea eta pertsona miresten dut.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Julio Medemen filmaren batean. Bere pelikulak gustuko ditut, baita horietan aktoreen lan egiteko modua ere.

Orain zarena izango ez bazina, zertan jardun gura zenuke?

Ekintzaile ekologista izango nintzateke; ekologiak asko kezkatzen nau, are gehiago gaur egun bizi dugun egoerak.

Ohitura txarren bat badaukazu?

Ansiosoegia izatea.

Aitor dezakezun bizio bat.

Ikastaroak, dantzagaz lotutakoak batez ere.

Barriro egingo zenukeen bidaiarik badago?

Ez dut asko bidaiatu. Helburu batez bidaiatzea gustuko dut, leku batera joan, eta bertan denboraldi bat ematea zer edo zertan parte hartzen. Berlinera denboralditxo baterako joatea gustatuko litzaidake.

Irakurri duzun azken liburua?

Che Guevararen biografia. Oso gustuko ditut biografiak.

Zein da zure ametsetako bat?

Nirea sentitzen dudana antzerkia egitea, konpainia egonkor batez.

Zer gabe ezin zaitzke bizi?

Ilusiorik gabe.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Guzurmendi (Gorliz). Nire gurasoen etxea bertan dago. Oso leku polita da: bista ederra, itsas adarra aurrez aurre eta eukalipito usaina. ○

LABURREAN— Bizitzako lehenengo urteak Algortan eman eta 12 urte zituenean Gorlizera joan zen Matxalen de Pedro. Institutua amaitu eta Bartzelonara alde egin zuen; baita bertako Institut del Teatren izena eman ere. Bertan, antzerki fisikoan edo keinu antzerkian espezializatu zen. Gaztetatik argi zeukan bere etorkizuna antzerki munduan zegoela, eta azken urteotan, horretan ibili da. Diego de Fandosoren Cosmos pelikulan eta ETB 1eko Pilotari telesailen parte hartu du, besteak beste. Getxoko Antzerki Jardunaldietan Ohean antzerki lanean ikusi ahal izan genuen Aitor Beltranegaz batera. Lan bera, Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean egongo da azaroaren 29an arrastiko 19:30ean.

BBK DE SIEMPRE